

ETA ZUK, ZER GARRANTZI EMATEN DIOZU PSIKOMOTRIZITATEARI?

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Anduaga Onandia, Olatz.

ZUZENDARIA: Lizarraga Gomez, Iraitz.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 10a

ABSTRACT

LABURPENA

Lan honek psikomotrizitate arloaren inguruan aditu ezberdinek dituzten ikuspegi eta esperientziak aztertzea du helburu, adibide eta gomendioak emanez ahalik eta ikasle gehienen premiei erantzun egoki bat emateko. Aretoaren saioa egoki bideratzeko urrats ezberdinak, material motak eta espazioaren egituraketa ezagutarazten da, hurraren garapena hobetze aldera. Baita, irakaslearen papera eta egin beharrak zeintzuk diren, gaur egungo hezitzaileek kontutan izateko.

Txantxiku Ikastolako ikastetxean burutu ahal izan ditudan behaketa ezberdinak teoriarekin alderatuz, ondorio ezberdinak atera eta proposamenak txertatu ditut. Lana gai honekiko interesa duen edonorri eta arlo honetan jarduten duten hezitzaileei zuzendua dago.

Hitz gakoak: psikomotrizitatea, mugimendua, garapena eta emozioak.

RESUMEN

Este trabajo tiene como objetivo analizar las perspectivas y experiencias de diferentes expertos en psicomotricidad, poniendo ejemplos y recomendaciones para dar una respuesta adecuada a las necesidades de la mayoría de los alumnos. Se dan a conocer los diferentes pasos, tipos de materiales y estructuración del espacio para la correcta actuación en la sala, y mejorar la práctica psicomotriz. Se analiza también, el papel del profesorado y sus necesidades, con el objetivo de mejorar la intervención de los educadores actuales.

El trabajo parte de datos obtenidos mediante la observación directa en el centro educativo Txantxiku. Dichos datos han contrastado con la teoría psicomotriz para llegar a conclusiones y formular propuestas de mejora para la práctica. El trabajo está dirigido a cualquier persona interesada en este tema y a los educadores que trabajan en esta materia.

Palabras clave: psicomotricidad, movimiento, desarrollo y emociones.



AURKIBIDEA

ABSTRACT	1
1. SARRERA	3
2. GAIAREN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
3. TESTUINGURUA	4
4. TXANTXIKU IKASTOLAKO METODOLOGIA	5
5. MARKO TEORIKOA	5
5.1 PSIKOMOTRIZITATEA	5
5.2 JOLASAREN GARRANTZIA	7
5.3 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN URRATSAK AUCOUTURIERREN PRAKTIKAREN ARABERA	9
5.4 ARETOAREN EGITURA	12
5.5 DISPOSITIBORAKO MATERIALA	14
5.6 PSIKOMOTRIZISTAREN PAPERA	15
5.7 BEGIRADA PERIFERIKOA	17
5.8 ESPAZIOA ETA DENBORA	19
5.9 EMOZIOAK	19
6. HELBURUAK	21
7. METODOLOGIA	21
8. BEHAKETAK	22
8.1 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN URRATSAK	22
8.2 ARETOAREN EGITURA	23
8.3 MATERIALA	24
8.4 HEZITZAILEAREN PAPERA ETA BEGIRADA PERIFERIKOA	24
8.5 ESPAZIOA ETA DENBORA	25
8.6 EMOZIOAK	25
8.7 BEHAKETA TAULAK	26
9. KONPARAKETAK	30
10. ONDORIOAK	34
11. PROPOSAMENAK	35
12. ERREFERENTZIAK	38
13. ERANSKINAK	41

1. SARRERA

Haur Hezkuntza graduko laugarren mailako ikaslea naiz, eta aurten azken urtean nagoenez, Gradu Amaierako Lana (GrAL) burutzeko unea iritsi zait. Horretarako, aukeratzeko nituen hainbat gairen artean gustukoena nuena hautatu nuen, Metodologia Alternatiboak Psikomotrizitatean gaia, hain zuzen ere.

Hori horrela, hurrengo orrietan, Psikomotrizitatearen inguruan adituek diotena kontutan izanik, definizio eta informazio ezberdinak aipatu ditut, marko teorikoa gaika sailkatuz. Hala nola, psikomotrizitatea zer den, jolasaren garrantzia, psikomotrizitateko saioaren urratsak, aretoaren egitura, dispositiborako materialak, psikomotrizistaren papera, begirada periferikoa, espazioa, denbora eta emozioak.

Lana zenbait ataletan banatu dut garbiago ulertu dadin: hasteko, sarrera txiki honen ostean, gaiaren aukeraketa eta justifikazioa azalduko dut. Bigarrenik, praktikak burutu ditudan ikastetxearen testuingurua eta metodologiaren nondik norakoak adieraziko dut. Ondoren, marko teoriko sakon bat burutu dut, adituek diotena kontutan izanik. Jarraian, lana aurrera eramateko pentsatutako helburuak eta metodologia ezarri dut eta berehala, praktika garaian zein ondoren behatu ditudan esparru ezberdinak azalduko ditut, eta behin ahala, teoria eta behaketak kontutan izanik, konparaketa bat burutu dut. Segidan, konparaketa horien ondorioak atera ditut, eta, zenbait proposamen txertatu ditut, gaiarekiko arlo ezberdinak hobetze aldera. Amaitzeko, txosten hau burutzeko erabilitako bibliografia eta eranskinak ezarri dut.

Sarrerarekin bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet bi urteko gelako hezitzaileei, Txantxiku Ikastolako ikastetxeari aukera hau eskaintzeagatik, haurrei, etab., baina bereziki nire ikastolako tutoreari eta GrAL-eko zuzendariari eman dizkidaten aukera, aholku, iritzi, konponbide eta animoengatik. Baita, bere konfiantzagatik eta esku-hartzeagatik, beraiengatik ez balitz, gauzak beste modu batera joango liratekelako.

2. GAIAREN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako Lana burutzeko hautatuko gaia, Metodologia Alternatiboak Psikomotrizitatean gaia izan da eta hainbat arrazoi dira kontutan hartu ditudan aukeraketa hau burutzerako orduan.

Lehenik eta behin, gustukoa eta interesgarria izateaz gain, hurrekin honen inguruko behaketak egitea asko interesatzen zaidalako izan da, haien garapenaren jabe izateko. Baita, ikastolan ematen den errealitatea nolakoa den ikusteko eta analizatzeko.

Bigarrenik, mugimenduaren bidez, emozioak nola esperimentatu, bizi eta azaltzen dituzten behatzeko, eta, gainontzekoei nola adierazten dien edota kideen emozioak nola barneratzen dituzten ikusteko.

Horrez gain, gorputzaren mugimendua egoki garatzea eta praktikan jartzeak ezinbesteko garrantzia duenez, hezkuntza esparruan funtsezkoa den arloa iruditzen zait, txikitatik ezarri beharrekoa.

Horri eutsiz, Aucouturierrek (Hik Hasi editoriala, 2004) aipatzen duen bezala, gaur egun ez zaio behar adineko garrantzirik ematen psikomotrizitateari, hots, gorputzaren mugimenduaren bidezko garapen psikologikoari. Egun, garrantzi handiagoa ematen zaio ezagutza kognitiboari, aldiz ez gara ohartzen hurrek menperatzen duten lehen ezagutza ez dela kognitiboa, gorputzari dagokiona baizik. Beraz, inongo presarik sartu gabe, txikitatik hurrei gorputzaren mugimendua lantzen lagundu beharko genieke.

3. TESTUINGURUA

Txantxiku Ikastola, 1967 sortu zen eta gaur egun guraso, langile eta laguntzaileez osatutako herri-onurako Oñatiko hezkuntza kooperatiba da; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako (0-18 urte) ikasleei giza baloreetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen zaie bertan. Egun, 992 ikasle, 85 langile, 549 familia eta 126 laguntzailek osatzen dute hezkuntza kooperatiba.

Txantxiku Ikastola, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat. Era berean, ikastolan, ikasleen heziketa integrala lantzen dute, aniztasuna kontuan hartuta eta familiarekin elkarlanean ikasleek bizitzari aurre egiteko behar dituzten konpetentzia orokorrak garatuz. Hau guztia, etengabeko hobekuntzan ari den langile-talde egonkorrek kudeatzen du.

Ildo beretik, Oñatiko hezkuntza kooperatiba integral eta euskalduna da. Mundura irekia den eta herrian errotuta dagoen pertsona euskaldun, konpetente, kooperatibo, konprometitu eta parekideez osatutako hezkuntza komunitatea. Horretarako egiten duten hautu pedagogikoa konfiantzaren pedagogian oinarritzen da: eredu humanista,

irekia, integratzailea, berritzaile-aurrerakoia, aktiboa-ekintzailea, parte hartzailea eta kooperatiboa (Ikus 3. eranskina).

4. TXANTXIKU IKASTOLAKO METODOLOGIA

2016/2017 ikasturtean Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzako etapa, proiektu berritzaile baten murgildu zen (Ixutu Proiektua) (Ikus 1 eta 4. eranskinak).

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia, etapa honetarako adimenaren gaitasunak, nortasunaren ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, gizarteratze eta harremanetarako oinarriak lantzen hastea da. Ikastolako hezitzaileek garbi dute haur bakoitzak bere erritmoa duela eta hori errespetatu beharra dagoela; beraz, haien lana bide horretan laguntzea eta gidatzea izango da, behaketan oinarrituta eta haur bakoitzak bere garapenean dituen beharrei erantzunez.

Ez dute zalantzan jartzen haurra berezko potentzialitatez eta bere kabuz ikasteko gaitasun eta desioarekin jaiotzen dela eta jolastuz, esploratuz, imitazioz, ikertuz eta esperimendatuz ikasten duela. Gaitasun horietan konfiantza jarriz hezi behar dituzte haurrak, euren buruan zein besteengan sinetsiz, bizitzan zehar sortuko zaizkien erronkei eta zailtasunei erantzuteko ahalmena garatzeko asmoz.

Ilido beretik, Txantxiku Ikastolak izugarritzko garrantzia ematen dio mugimendu askeari, haurrak bere motrizitate guztia bere kabuz garatzeko gai delako, hain zuzen ere. Eta, haurra era aske batean mugi dadin, hezitzaileok baldintzak sortu behar ditugu.

5. MARKO TEORIKOA

5.1 PSIKOMOTRIZITATEA

Psikomotrizitatearen inguruan dauden teoria eta iritziak ugariak dira, baina, funtsean, haurra eta haren garapena ulertzeko era bat da. Nire gaia sakondu aurretik, garrantzitsua iruditzen zait psikomotrizitatearen inguruan dauden ikuspegi ezberdinen laburpen bat egitea.

Bernard Aucouturier jotzen da psikomotrizitatearen sortzailetzat, umearen osotasuna errespetatuko zuen metodologia bat sortu zuen, eta modu horretan jaiotzen

psikomotrizitate-praktika. Hark, psikomotrizitatea mugimenduaren eta psikismoaren arteko erlazioa azaltzen duen terminoa dela aipatzen du. Haurren garapen psikologikoa gorputzaren mugimenduaren bitartez gauzatzen da, kanpoko munduarekin harremanetan dagoelarik (Aucouturier, 2017). Praktika psikomotorrari ekiteko, toki garrantzitsua eskaini behar zaie ikaskuntza-prozesuetako ekintzei, adierazpen askeari, jolas-jarduera anitzei, emozioei eta hitzei (Aucouturier, 2011).

Psikomotrizitateak haurren garapen-prozesua ahalbideratzen du eta horretan esku hartzen uzten digu helduoi. Psikomotrizitate-praktikan haurren portaeraz gain, garapen psikomotorraren hainbat aspektu jartzen dira agerian, eta helduok behaketa egokien bidez, hainbat datu ezagutu ditzakegu. Dena den, psikomotrizitate-praktika aplikatzea ez da erraza, parametro zehatz batzuk eskatzen dituelako eta ongi zehaztu behar direlako erreferentzia-esparruak (Font, 2009).

Ilido beretik, psikomotrizitate praktikak aukera ematen dio haurrari jarduteko eta dituen beldurrekin, mamuekin, sufrimenduekin, etab. jolasteko. Hezitzaileak, haurrak beharrezkoa duen ingurunea eskainiko dio, segurtasuna senti dezan. Hori, jarduteko eta jolasteko gogoia izateko behar duen segurtasuna da, eta bere barne-mundua martxan jartzeko balioko dio, epaiketen eta erasoen inolako beldurrik gabe, alegia (Beñaran, 2017).

Psikomotrizitate praktikaren bitartez, gai izango gara haur bakoitzaren adierazkortasun motorraren atzean gordetzen diren alderdi dinamikoak ulertzeko. Hots, ez diogu egiten duen horri soilik erreparatuko, nola egiten duen ere erne aztertu beharko dugu (Cremades, 2017).

Horrez gaiz, beren gorputza bizitzeko aukera ematen die haurrei; beren ekintzaren bitartez, fisikoki zein psikikoki elikatzeko aukera. Haurrak lehenengo sortzen duena gorputza bada, beren burua sortzeko eta berrosatzeko ibilbidea ematen die haurrei psikomotrizitate-praktikak, berritzeko eta aldatzeko aukera (Cremades, 2017).

Bestalde, psikomotrizitateak haurren garapen integralean laguntzen du, eta ikuspuntu biologiko zein psikologo batetik begiraturaz, ariketa fisikoak funtsezko funtzioak bizkortu eta gogo-aldarteak hobetzen laguntzen du (Pacheco, 2015). Gainera, psikomotrizitatearen esku-hartzeak haurren garapen orokorrari mesede egingo dio, mugimendu aske eta espontaneoari esker zein hezitzailearekiko errespetu, entzute eta esperientziaren bidez (Maldonado, 2008).

Hari beretik, psikomotrizitatearen inguruan hitz egiten dugu psikismoa eta mugimenduaren, eta, adimen eta ekintza eragilearen arteko erlazioak aipatzerako orduan. Beraz, garrantzitsua da jakinaraztea psikomotrizitatea mundua ez dela soilik ekintza eragilea, esku, oin eta gorputzeko atalekin egiten duguna, alegia. Irudikapen mentalen mundua ere bada, non barneko akzioen transkripzioa osatzen den, eta horren bitartez, haur batek besoa luzatuta zerbait eskuratzea iristen dela jakiteaz gain, zein distantziaz heldu daitekeen edo ez jakiteko gai da (Palacios eta Paniagua, 2005).

Azkenik, psikomotrizitatea emozioen, komunikazioaren eta harreman sozialen mundua da. Eta, gela berezi batean egin beharreko jarduera bat baino gehiago ere bada, aitzitik, gainerako jardueretan integratu beharreko hezkuntza hezigarria da, non jarduera antzak gertatzen diren testuinguruetan garatu behar den (Palacios eta Paniagua, 2005).

5.2 JOLASAREN GARRANTZIA

Ezin da ukatu jolasak pisu handia duela haurtzaroan, Gorputz Adierazpena lantzeko ezinbestekoa baita (Agudo, 1990). Jolasa, mugimendua eta askatasunarekin lotzeaz gain, utopiarekin eta sormenarekin ere erlazionatu daiteke, azken honek akzioa eta artea lotzen baititu. Jolasaren bitartez, pentsamendu kritikoa landu eta garatzeaz gain, garapen soziala eta pertsonala ere garatzen dira. Hortaz, jolasaren bitartez, haurra etengabe ezagutza berriak bereganatzen ari da (Abad, 2011).

Gainera, haurren oinarriko jardueretako bat da, non hurrek ikasi eta nortasuna eraikitzen duten. Jolasak, haien pentsamenduak egituratzen eta bizitzeko beharrak estaltzen laguntzen die (Fusté eta Bonastre, 2007).

Jolasteko aukera izatea umearen eskubidea da, norbere identitatearen eraikuntzarako baliabide nagusia delarik. Hurrek jolastean motrizitatea eskuratzen dute, eta horren bidez, espazioa egituratu, errealitatea ulertu, sentitzen dutena adierazi, edota beren nahiak, beldurrak, fantasiak nahiz desioak sinbolizatzen dituzte. Sinbolizazioa nahitaezko baliabidea da nor garen, zer gustatzen zaigun eta zer ez, gure lehentasunak zeintzuk diren edota zer desio dugun jakiteko. Hortaz, haurraren garapenean funtzio garrantzitsua betetzen du, eta aukera ematen die euren nahien eta beharren arabera jolasa aldatzeko. Haurra bizitza errealeko gertaerak errepikatzen hasten da eta bere beharren arabera horiek eraldatzen ditu, errealitateko objektu baten

zenbait ezaugarri ezagutuz eta ezaugarri horiek beste objektu batzuei ezarriz (Hik Hasi editoriala, 2016).

Horrez gain, jolasaren bidez (jolas librea edo bideratua) ongi pasatzeaz gain, haurrek esperimentatu, ulertu, arakatu, finkatu, ikasi, etab. egiten dute. Gainera, haien mundua erakusteko, eta, tentsioak eta ardurak azaltzeko edota espresatzeko baliabide egokia da. Bere ustiapen kognitibo eta sozialaz gain, jokoak erabilgarritasun emozional handia du, haren bitartez gatazka asko adierazteko eta tentsioak ebazteko balio duelako, alegia. Lehenengo urte eta erdian jolasa batik bat sentsorimotorra izango da, baina bigarren urte erdian, jolas sinbolikoa agertuko da, non haurrek errealitatea arakutzen duten heinean, harekiko kontzientzia erakutsiko duten (Palacios eta Paniagua, 2005).

Bestalde, jolasaren bitartez, poliki-poliki psikomotrizitate-praktika eraikitzen hasten da, hezkuntzaren eta prebentzioaren praktika, hain zuzen ere. Hona hemen praktika horren helburuak (Aucouturier, 2017):

- Lehenengo helburua funtzio sinbolikoa garatzea da, hots, umeei gorputzaren bidez adierazteko edo espresatzeko aukera eskaintzea, jolasaren, ekintzaren zein irudien bidez antzezteko aukera eskaintzea.
- Bigarren helburua, ordea, birsegurtatze-prozesua sustatzea da, haurrek bizitzen dituzten larritasun eta ondoezak jolasaren bidez arintzea eta gainditzea.
- Hirugarren helburua, aldiz, umeei deszentratze-prozesuan laguntzea da, haurra den hori eta kanpoko mundua bereizteko gai izatea, alegia. Dena den, Aucouturierrek, haurrek gaitasun hori izan dezaten 5-7 urte behar direla aipatzen du, bestela, haurrek emozioak eta pentsamendu magikoak deformatutako ikuspegitik barneratuko du kanpoko mundua.

Hala eta guztiz ere, helburu guzti horien barruan, haurraren plazerra da euskarri edukitzailea, esaterako, jolasteko eta egiteko plazerra, pentsatzeko plazerra, mundua aldatzeko plazerra, etab. Beraz, haurraren garapen psikologikoan plazerra ezinbestekoa da (Aucouturier, 2017). Gainera, haurrak gorputzaren bitartez, hitzik egin gabe, plazer-egoera ezberdinak adierazten dituenean, arindu egingo ditu bere memorian dituen alderdi mingarriak (Perez, 2017).

Fonten (2009) iritziz, plazerrak psikomotrizitatean berebiziko garrantzia du, emozioa eta nahia estuki lotuta daudelako, eta haurrek horixe bilatzen dutelako. Psikomotrizitateko gelan, haurrak gustura eta egoki daudenean euren gorputzak ere ongizatea islatzen duela antzematen dugu, poza adierazten duela, alegia. Plazerrik ez

badago, ez dago garapenik, edota zailtasunak izango ditu garapen horretan. Funtsean, helduek plazerra eragiten duten gauzak egiten dizkiete hurrei, eta hurrek, aldiz, psikomotrizitate gelan plazerra sortzen dieten ekintzak egiten dituzte.

5.3 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN URRATSAK AUCOUTURIERREN PRAKTIKAREN ARABERA

Hona hemen saioko ondoz ondoko faseetako edukiak, Aucouturierrek zehaztu zuen ereduari jarraiki (Aucouturier, 2011 eta Aucouturier eta Winnicott In Beñarán, 2017):

1. SAIOAN SARTZEKO ERRITUALA: saioaren hasierako erritualak berebiziko garrantzia du, motrizitatea lantzen den hezkuntzako une aparta hori bereizten baititu eguneko beste une batzuetatik. Hurrek segurtasun osoarekin haien beldur, plazer zein desirak azaltzeko tokia da, eta hasierako erritualaren bidez toki horretan sartzen direla ulertuko dute.

Haurrak, banku batean esertzen dira, aretoa eta lekuak ikusten dituztela, eta ahal den heinean, talde osoa ikusi behar dute. Jarraian, oinetakoak eta berokiak kenduko dituzte eta zenbait puntu gogoraraziko zaizkie:

- Aretoan ez daudenak aipatu, harreman afektiboaren une bateko galeraren garrantzia helarazteko.
- Aretoa haienezako prestatu dugula gogorarazi
- Arauak birgogoratu:
 - o Lagunei ez diegu minik egin behar, ezta norberaren buruari ere.
 - o Ezin dugu materiala puskatu, eta ezin dugu materiala espazio batetik bestela eraman.
- Aurreko saioak gogoratu, zer gustatzen zaigun eta zer ez gogoratu.
- Haurren galderei edota iritziei lekua utzi.

2. ADIERAZKORTASUN MOTORRAREN FASEKO EDUKIAK (suntsipena): Sarreraren ostean, hurrek egoki ezagutzen duten seinale batek jostatzeko grina erreprimitzen jarraitzetik askatzen ditu. Batzuentzat, ezinegon handia izango da, baina hezitzaileak ezinegon hori erabili behar du, hurrei eutsi eta itxarotearen une justuan askatu.

Aldez aurretik irakasleak aparrezko kuxin blokez eginiko harresi bat prestatuko du gelaren erdian. Kuxinez egindako eraikuntza hori denen artean puskatzea da helburua, eta momentu horretan, emozio kolektibo bizia askatzen da. Jarduera horrek iraun egin behar du; beraz, hezitzaileak behin eta berriz arin eta beti ezberdin berreraikitzen du harresia. Hurrek, normalean, poz handiko giroan suntsitzen dute torrea, eta horren bidez, suntsitzeko atseginarekin eruduntasuna gainditu daiteke, eta ekintzarako eta hizkuntzarako bidea ireki.

3. HIZKUNTZA BIDEZKO SEGURANTZA SAKONAREN FASEKO EDUKIAK: "ISTORIOA": saioaren amaieran, korroan esertzeko eta abesti bat kantatzeko proposatuko zaie hurrei, edota haien adinei egokitutako istorio bat kontatu. Poliki-poliki, hurrek geroz eta arreta handiagoarekin entzungo die irakasleari, karga emozionalez kontaktzen dituelako.

Istoria kontatzeko eskaintzen zaion denbora tartea segurantzarako jolasekiko lotura eratzea ahalbideratzen du. Istoria, hizkuntzaren bidez, segurantzarako jolas dramatiko bihurtuko da, eta bere tokia aurkitzen du adierazkortasun motorren fasearen ondoren.

Era berean, istorioa beti espazio berean kontaktzen da, eta hurrek toki bera hartuko dute. Bi erregistro hauek ezinbestekoak dira istorioan: **larrimina handitzea** (narratioari balio dramatiko ematea); narratioak beldurrezko gaitan oinarritzen dira eta inkontzienteko gai garrantzitsuetan, jazarria eta suntsitua izateko larriminari eta ama galtzeko larriminari dagokienetan. **Segurantzaren oinarrietara itzultzea** (segurantzaren emozionala sortzea); istorioak zentzua izateko, garrantzitsua baita istorioko heroiek irabaztea, erasotzailea gainditzea eta sendotua irtetzea erasotzailearen astakeriaren eta inozokeriaren aurrean.

4. ADIERAZKORTASUN PLASTIKO ETA GRAFIKOAREN FASEKO EDUKIAK: aurreko fasearekin amaitu ostean, hurrei aurretik prestatutako adierazkortasun plastiko eta grafikoaren espaziora igartzeko eskatuko zaie. Bertan, norberak aukeratzen du marraztu edo eraikinak egin nahi duen, baina gogoratu behar zaie eraikuntzak zoruan egin behar direla, eta, aldiz, marrazkiak mahai baten gainean edo plano altuago batean. Jarduera horren bidez, sinbolizatze gaitasun-maila batera heldu daiteke, baita deszentratzea lortu ere.

Haurren erritmoa, egiten dituzten etenaldiak eta aukeraketak errespetatu behar dira, eta sortzen ari den bitartean ezin dugu eten bere jarduna, haurraren irudikapenaren sinbolizazioa etengo lituzke.

Eraikuntzak egiten ari diren haurren ondoan egongo da hezitzailea, beharra izanez gero, haurrek erabiliko duten materiala eskuratzen laguntzeko, eta haien ekoizpenetik abiatuta komunikazioa errazteko. Horrela, ba, irakasleak eraikitzen ari direnaren inguruan galdetuko die, zer eraikitzen ari diren, zer esan nahi duen, etab.

5. IRTEERA-ERRITUALA: hau ezinbestekoa da saioari amaiera emateko, eta beti errespetatu beharreko fasea da. Posible da erritual ezberdinak proposatzea adinaren arabera. Esate baterako, 2-3 urte bitarteko haurrentzat irteera erritual moduan planteatu daiteke guztiak korroan jarrita ondo ezagutzen duten istorio edo kantu bat abestea, era honetan, segurtasuna emanaz.

Azkenik, esan, irtetzerako orduan, umeei asko gustatzen zaiela eskua ematea, helduen arteko harreman sozialen sinboloa delako.

Badira Aucouturierren proposamenaz gain, urrats berdinak proposatzen dituzten autoreak ere, adibidez, Ostau de Lafond (2017) eta Arnaiz, Rabadán, eta Vives (2001). Fusté eta Bonastrek (2014), aldiz, soilik hiru urrats planteatzen dituzte: sarrera errituala, jarduera psikomotorra eta amaierako errituala.

Saioaren iraupenari dagokionez, haurren adinaren arabera aldatu egiten da. Fase guzti horiek gauzatzeko 60 minutu nahiko da, baina bi urteko haurrekin, adibidez, iraupena laburragoa izan daiteke, aldiz, sei urteko haurrekin 80 minutura arte luzatu daiteke (Aucouturier, 2011).

Arnaiz, Rabadán eta Vivesek (2001), ordea, honako sailkapena egiten dute: 0-2 urte bitarteko haurrei psikomotrizitateko zenbait material gela arruntera eraman eta astean bi edo hiru bider 45 minutuko saioak egitea. Eta, bi urtetik aurrera, astean behin, ordu eta erdiko iraupeneko saioak egitea gomendatzen dute.

Bestalde, saioaren iraupena haurren interesetara adaptatu behar da, deskantsuetarako ordutegia errespetatuz, eta haur bakoitzaren denbora pertsonala kontutan hartuz. Gainera, garrantzitsua da ezagutzea eta behatzea zenbat denbora beharko duten jolasean sartzeko, kontzentratzeko eta nekatzeko, horien bidez,

norberaren denbora naturala errespetatzen lagunduko digulako (Fusté eta Bonastre, 2007).

Aretoan egon daitekeen haur kopuruari dagokionez, egokia lirateke hezitzaile bakoitzeko hamar haur egotea (Aucouturier, 2011).

5.4 ARETOAREN EGITURA

Psikomotrizitate-aretoa, haurren eskura ipintzen diren txoko eta material espezifikoz hornitutako berme- eta segurtasun-espazio sinboliko bat da, non hurrek bere adierazkortasun motorra bizitzen duten, eta jarduerak egiteko zein hurrek libreki eboluzionatzeko eta garatzeko erabiltzen den. Ildo beretik, psikomotrizitatearen helburuak lortzeko eta haurrak hazten eta garatzen doazen heinean uneko premiei edo beharrei erantzuten laguntzeko, denbora eta espazio jakinean egituratzen da psikomotrizitateko aretoa (Aucouturier, 2011).

Espazio-baliabideari dagokionez, aretoa bi gunere bereziki osatzen dute. Batetik, haurraren adierazkortasun motorrerako prestatutako toki bat, zeina ekintzarako eta jolaserako tokia izango den, eta bestetik, adierazkortasun plastikorako, grafikorako eta hizkuntza-adierazkortasuna bideratzeko tokia. Hurrei toki batetik bestera igarotzeko gonbidapena egingo zaie, gorputzarekin jolasteak eskaintzen eta sentitzen duten plazerretik eraikuntzaren eta hizkuntzarekin sinbolizatzeak ematen duen plazertera igarotzeko. Horrela, ba, hurrek maila askotariko sinbolizazioak egiteko aukera paregabea du, gorputz zein hizkuntzaren bitartez; beraz, poliki-poliki bere emozioekiko distantzia hartzen hasten da, eta horrek, deszentratzen lagunduko dio (Aucouturier, 2017).

Denbora-baliabideari dagokionez, ordea, Aucouturierren banaketaren arabera, hiru une bereizten diren saio bakoitzean, hasierako eta amaierako erritualez gain. Haurraren adierazkortasun motorrari eta jolasari dagokion denbora-tartea, istorio bati dagokion denbora-tartea eta sinbolizazioari dagokion denbora-tartea, zeina grafismoaren, eraikuntzaren, modelaketaren eta hizkuntzaren bidez gauzatzen den. Dena den, sarri planteatzen dugun galdera bati erantzuten dio adituak, hots, zergatik tartekatzen duen istorio bat saioaren erdian. Horren arrazoia, istorioak birsegurtatzen eta irudi plastikoak sortzen laguntzen duelako, eta irudiek bere ondoezetik urruntzeko aukera eskaintzen dutelako da (Aucouturier, 2017).

Era berean, Maldonadok (2008) psikomotrizista baten lana, normalean, espazio-denbora tarte baten barruan ematen dela dio, giza garapenaren etapa ezberdinen adierazle:

- Espazio afektiboa eta toniko emozionala, non haurren sakoneko emozioak azaleratzen diren.
- Espazio sensoriomotorra, non ingurumenaren lehen ezagutzak eta ekimenak gauzatzen diren.
- Jolas sinbolikoaren espazioa, non haurren lehen gatazkak eta emozioak helarazten diren.
- Errealitatearen espazioa, non gorputza modu funtzionalean erabiltzen da, kompetentzia moldagarriak ikasiz. Burua, gorputzaren gainean pentsatzeko eta autonomikoki hausnartzeko gai den bitartean, gorputzetik bertatik pasatu gabe.

Bestalde, psikomotrizitate gela ez da soilik hormek zehaztutako espazioa, beharrezkoa da bere funtzio didaktikoa errazten duten beste ekipamendu batzuek hornitzea. Besteak beste: gela goxoa eta eroso izatea; giro atsegina bultzatzea, zeinak mugimendua eta jolasa bultzatzen duen; dekoratua egotea, baina ez gaintzatuta; argiztatze egokia izatea, eta intentsitatea handitzeko zein txikitzeko aukeraz baliatzea; haurrak mugitzeko toki zabal eta handiaz baliatzea; haurren mugimendu askea eta desplazatzeko aukera eragotziko duen oztopoak ez izatea; ispilu handi bat izatea, haurrek nahi dutenean nola jolasten edota lan egiten duten ikusteko (Pacheco, 2015).

Horrez gain, aretoa argitsua eta erakargarria izan behar du, arreta handiz zaindu behar da eta materialak garbi egon behar dira. Azken finean, espazio baliagarririk gabe eta materialik gabe, ezin daiteke praktika psikomotorra gauzatu (Aucouturier, 2011).

Psikomotrizitateko gela zabala, altua eta garbia izateaz gain, tenperatura egokiaz baliatu behar da, eta eroso da bertako estaldura, kolore eta materialaren argitasunagatik. Ongizate giroaren bidez, haurrek bertan geratzeko plazerra sentitu behar dute. Haurrek astean behin, esaterako, bertara joatean, plazer sensoriomotorra, komunikazioa, adierazpen psikomotorra eta norberaren nahiak azalaraztea lortzen dituzte (Aucouturier, Darrault eta Empinet, 1985).

Modu berean, gelan gauza asko baimenduta dauden esparrua den arren, permisibitateak aseguru-ordenaren bidez baino ez du hartzen zentzua. Gelara sartzen

diren hurrek ez dute kaosa jasaten, gauza bakoitza bere tokian aurkitu nahi dute, bide batez ikuspegi orokorrak haien espektatibei erantzuteko. Hurrek saioa hastean gauzak suntsitu dezakete, baina ordena-funts baten gaineko desordenak ez du orden ezaren esanahi bera, horrek larritasuna ekarri dezakelako (Aucouturier, Darrault eta Empinet, 1985).

Fusté eta Bonastren (2007) iritziz, espazioa antolatzeko moduak hezitzailearen nahia zein den adierazten digu. Haiek, espazioa lau txokoetan banatu beharko litzatekela adierazten dute, bakoitza material eta helburu espezifiko batekin:

- Espazio bigunean, aparrezko kuxinak, koltxonetak, telak, panpinak, alfonbra, etab. bidez, hurrak lasaitu, erori, kulunkatu, arrastatu, jaurti, etab. egingo dira (jolas afektiboa).
- Espazio gogorrean, eskailerak, arrapalak, plataforma altuak zein baxuak, bankuak, etab. bidez, hurrak korrika, saltoak, oreka landu, giroak, arrastatu, eskalatu, etab. egingu dute (jolas motorra).
- Espazio sinbolikoan, oihalak, uztailak, gortinak, kuxinak, etab. bidez, hurrak egoera ezberdinak bizitzean gain, gainontzeko hurrekin zein hezitzailearekin komunikatzen eta harremantzen lagunduko die.
- Irudikapenaren espazioan, arbela, klariona, muralak, argazkiak, etab. bidez, hurrak sentipen sentsomotorretik urrunduko dira.

5.5 DISPOSITIBORAKO MATERIALA

Aucouturierrek materiala bitan sailkatzen du: batetik, **adierazkortasun motorrerako materiala**, eta bertan honako hauek sartzen ditu: altzariak (horma-barrak, ispilu handi bat, arbela, armairuak eta plastikozko kutxak materiala gordetzeko eta mugi daitezkeen kutxa itxiak), material biguna (koloretako eta tamaina ezberdineko oihalez estalitako aparrezko kuxinak, pilotak eta hodiak, tamaina guztietako oihalak, pelutxezko animaliak eta oihalezko panpinak eta kotoizko soka motzak) eta material gogorra (kautxuzko uztaiak, zurezko makilak, tamaina ezberdinetako azpil eta ontziak eta toki finko batean egoten diren makiladun perkusio-tresnak). Bestetik, **adierazkortasun grafiko eta plastikorako materiala**, non marrazteko edota eraikuntzak egiteko erabiliko den. Bertan, altzariak (mahiak eta aulkiak), marrazteko materiala eta eraikitze materiala aurkituko dira (Aucouturier, 2011).

Horrez gain, toki bakoitzari material jakin bat dagokiola dio, eta materiala ezin da toki batetik bestera mugitu. Honako araua bete beharra dago haurrak adierazkortasun motorretik sinbolizatze-mailara anitzetarako ibilbidea egin ahal izateko (Aucouturier, 2011).

Materialak, parametro hauen arabera sailkatu daitezke (Arnaiz, Rabadán eta Vives, 2001):

Finkoa		Mugikorra	
Eskuratzeko eta ikusteko modukoa		Eskuratzeko eta ikusteko ez modukoa (irakasleak eskainiko diena)	
Gogorra		Biguna	
Handia	Ertaina	Txikia	

Pachecoren (2015) ustez, materiala infinitua da, baina objektu didaktiko gisa erabiltzen diren elementuak mugimendua motibatu behar dute. Adibidez: kolore, tamaina zein forma ezberdineko kuxinak, oihalak, uztailak, tamaina, pisu eta testura ezberdinetako baloiak, koltxonetak, arrapalak, panpinak, sokak, etab.

Aucouturier, Darrault eta Empineten (1985) iritziz, garrantzitsua da material finkoak (espalderak, ispilua, arbela, etab.) zein mota askotariko eta hautatutako material mugikorrek izatea gelaren barruan. Hain zuzen ere, jolas sinbolikorako (baloiak, kuxinak, uztailak, sokak, oihalak, panpinak, etab.), espresio pultsionalerako (perkusiozko instrumentuak) eta plazer sentsorimotorrerako (bankuak, aulkiak, mahaiak, eskailerak, etab.). Gainera, elementu horiek beharrezkoak dira haurrak jarduera arriskurik gabe eta mugarik gabe bizi ahal izateko.

Cremadesek (2018) goma-aparrezko kuxinen garrantzia aipatzen du, suntsiezinak eta sentikorrek direlako, bizitza propioa izan dezaketelako eta haien eraldaketa infinitua delako. Horrez gain, eraikuntza ezberdinak egiteko eta behin eta berriz suntsitzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute (Aucouturier eta Winnicott In Beñarán, 2017).

5.6 PSIKOMOTRIZISTAREN PAPEREA

Psikomotrizista saioan zehar egoki sentitzea garrantzitsua da, eta izateko atsegina bizi behar du neska-mutilekin. Haurrek bere segurtasunerako eta garapenerako

ezinbestekoa duen babes-bilgarri batek babesten duela sentitu behar dute. Funtsean, psikomotrizista eragilea eta behatzailea izan behar da aldi berean (Aucouturier, 2011).

Hurrek, une oro bilatzen dute komunikazioa, komunikatzean emozioak partekatzen baitdute, eta gainontzekoei bere buruaren berri eman nahi baitio; beraz, psikomotrizistak haurren mezuen (hitzezkoak eta ez-hitzezkoak) zentzua hauteman behar du, eta keinu, emozio eta hizkuntzaren bitartez haiei erantzun egoki bat eman. Bestalde, poliki-poliki konfiantza osoa finkatzen joan behar da, hurrek berarekin kontatu ahal dutela ikusteko eta barneratzeko. Haur taldearekin elkarrekintzan jardun behar du, haurren emozioei arreta jartzen eta interpretatzen, egoera zailtan laguntzen eta hurrei falta zaien atsegina biltzen lan egingo du (Aucouturier, 2011).

Bestalde, hurrei berarekin kontatu ahal dutela sentiarazi behar du, hots, haien beharrak hauteman ditugula eta laguntzea nahi badute eskura izango dutela (Palacios eta Paniagua, 2005).

Ildo beretik, haurrak garbi izan behar du irakasleak ezin duela bere jolasean parte hartu, baizik eta kide sinbolikoa dela. Hobeto esanda, haurraren jokoaren parte da, ez jokalaria gisa, baizik eta ibilbide bateko agente gisa. Haurrak ulertu eta entzun behar ditugu, era horretan haien eskaerei erantzun ahal izateko, proposamenak egiteko, etab. Horrez gain, haurra gelara sartuaz bat arauak finko eta pixkanaka zehaztu behar dira, haurren beharrak ulertaraziz, baina saioan minik egitea ezin dela onartu behar du (Aucouturier, Darrault eta Empinet, 1985).

Psikomotrizistak psikomotrizitateko gelan igarotzen du bere bizitza profesional osoa, eta ezinbestekoa du bere formakuntzan zehar egoera anitzak bizitzea, plazer sensoriomotorrak eta hark dakarren emozioen garrantziaz jabetzeko. Baita, bere burua, dinamika pertsonala, keinuak, espazioarekiko, materialarekiko eta pertsonetikiko inplikazioa, etab. bizitzeak eta ezagutzeak berebiziko garrantzia du. Azken finena, psikomotrizista, haurren sentimen-plazerra sortu, mobilizatu eta eboluzionatzeko gaitasuna duen espezialista da (Aucouturier, Darrault eta Empinet, 1985).

Era berean, entzute aktiboa garatzen jardun behar du, hitzetik haratago doan entzutea, haurrengandik jasotzen ditugun emozioen entzute toniko-emozionalera bideratua baitago. Funtsezkoa da enpatia tonikoaz lan egitea, eta haurren ikuspegi ulerkorra eta errukiorra izatea, pertsona oro den bezalakoa onartzeko eta norberaren funtzionamendua ulertzeko. Hurrekiko sentiberatasuna izatea ere garrantzitsua da, beharra dutenean laguntzeko, eta abegikor edo firme jardun behar dugun jakiteko (Cremades, 2018).

Horrez gain, haurrekiko onespén eta onarpen jarrera erakutsi behar du, haurrek berarekin kontatu ahal dutela ikusteko (Aucouturier eta Winnicott In Beñarán, 2017). Baita, entzute aktiboa, autoritatea, enpatia, hizkuntza garbia eta zehatza, eta begirada lasaia izatea ezinbestekoa da (Arnaiz, Rabadán eta Vives, 2001).

Psikomotrizistak hurrei seguru eta baloratuak sentiarazten lagundu behar du, eta posibilitate eta objektibo ezberdinen bitartez, hurrei gorputz, material, pentsamendu eta hitzen bidez haien emozioak eta istorioak azaleratzen utzi behar dizkie (Monzittu, 2018). Horrela, ba, arduratsua izateaz gain, beharrezkoa da heldua izateak dakarren desirarekin eta plazerrarekin konektatzea, haurrari bere desioa eta hazteko plazerra konektatzeko aukera eman diezaion (Dominio, 2018).

Psikomotrizistak estereotipo guztiak hautsi eta gaiaren inguruko kontzientzia hartu behar du, sexua alde batera utziz eta haien beharrei erantzunez. Atentzio handia jarri beharko dio estereotipo kultural zein sozialengan, eta integrazioa bultzatu beharko du, etorkizun batean haurrek nahi dutena aukeratzeko eta erabakiak hartzeko (Dominio, 2018).

5.7 BEGIRADA PERIFERIKOA

Psikomotrizistaren begirada periferikoa ezinbestekoa da hurrei segurtasuna sentiarazteko. Taldeko jardueretan parte hartzea mugatua izan behar da, nahiz eta haurrek eskatu (Aucouturier In Berriozabal, 2018).

Honek, haurrentzako izugarritzko segurtasuna adierazten du, haiekin gaudela kontatzen dutelako gure presentzia, erabilgarritasuna eta erantzukizunaren bidez. Hurrei lekua uzten diegu eta haien desirak entzuten dugu, azken finean haurrek nahi dutena betetzea da gure helburua nagusia (Berriozabal, 2018).

Era berean, Berriozabalek (2018: 32) Beñaranen lanari erreferentzia eginez honako hau dio:

Esa "mirada del otro" como eje que permite al niño convertirse en protagonista real de su proceso de autonomía y crecimiento. La mirada periférica del psicomotricista sería el eje que permite al niño convertirse en protagonista real dentro de un grupo.

Hona hemen begirada periferiko bat analizatzeko parametroak (Berriozabal, 2018):



1. Psikomotrizistaren erabilgarritasuna eta presentzia argia egiteko parametroak. Hurbileko eta urruneko dialektika:

- Gorputzaren jarrera: aretoan okupatzen duen tokia
- Bere lekura itzultzeko behar duen denbora tartea
- Begirada: une zehatz batean Zoometik panoramikara pasatzeko unea

2. Norberaren esku-hartzeak behatzeko parametroak:

- Hitzezkoak eta ez-hitzekoak:
 - o Gorputzaren jarrera: bertikala, haurraren altuerara, etab.
 - o Gertura: hitzekin, gestuekin, ukimenarekin, begiradarekin, gorputzarekin, etab. nola erantzuten dien haurrei
 - o Urrutira: gestuak, begirada, hitzak, etab.
 - o Erritmoa
 - o Partaidetzaren eta erantzunen intentsitatea
 - o Zer eta nola esaten duen
 - o Hitzeko hizkuntza eta isiluneak
 - o Hitzeko hizkuntzaren tonua eta bolumena
 - o Distantzia fisikoa

3. Taldeko esku-hartzeak behatzeko parametroak:

Finkatutako esku-hartzeak: erritualak eta istorioa

- Gorputzaren jarrera. Espazioaren antolaketa
- Talde osoari bideratutako hitzeko hizkuntza: tonua, bolumena eta zabaltasuna
- Proposamenak eta azalpenak:
 - o Hitzezkoak:
 - Arauak

- Ez-hitzezkoak:
 - Zer? Nola? Noiz? etab.
 - Psikomotrizistaren espazioaren presentzia
 - Materialaren espezializazioa eta antolamendua

5.8 ESPAZIOA ETA DENBORA

Gure gorputza koordinatu berezietan mugitzen da, non gure ekintzak iragan egiten diren. Haurrak bere gorputza irudikatuz joan behar dira oinarrizko plano berezietatik (gora-behera, aurrera-atzera) ikasteko konplexuenetaraino (ezkerra-eskuina), bere bizitza igarotzen den eszenatoki espazialaren testuinguruan, eta antolatzeko gai izango diren parametroen arabera (gertu-urruti, barruan-kanpoan, motza-luzea, etab.). Gainera, psikomotrizitatean beti gertatzen den moduan, aurrez aipatutako nozio guztiak lehenengo ekintzetan agertuko eta menperatuko dira, eta gerora irudikapen bilakatuko dira. Dena den, esanguratsuak ez badira, ez dira irudikapen bilakatuko (Palacios eta Paniagua, 2005).

Bestalde, psikomotrizitate saioan zehar, haurrek gustuko duten material bat eskuratzean, esaterako, espazio babestuak bilatzen ditu finkatzeko, eta behin hori finkatutakoan, hezitzaile baten arreta eskatzen du, espazio hori onartzeko asmoz. Haurrek, bere espazioa izateko desioa erakusten dute, eta hezitzailearekin harremana izatea bilatzen du, dena den, haurrek bi urtetik aurrera erabat identifikatzen dira bere espazioarekin (Aucouturier, 2011).

Haurrek betetzen duten espazioak, haien lehentasunen, gustu eta pertsonalitatearen inguruan informatzen digu. Haurrek segun eta nola okupatzen duten espazio hori, pertsona orok berarekin duen erlazioa jakinarazten digu, gorputz, ahotz, begirada eta gestuen bidez (Arnaiz, Rabadán eta Vives, 2001).

5.9 EMOZIOAK

Emozio hitza latinezko *movere* hitzetik dator (mugitu), beraz, emozioa mugimenduari lotzen zaio. Emozioak baldintzatuak, unibertsalak, gogoratuak zein eragindakoak izan daitezke, eta, erantzun konplexua direla ere esaten da, beti modu sinkronikoan funtzionatzen ez duten hainbat elementuz osatuta baitaude. Horrez gain, adierazi, emozio ezkorrak (hira, beldurra, goibeltasuna eta abar) norberaren helburuak

lortzeko eragozpentzat hartzen diren gertaeretan sortzen direla, eta emozioa positiboak (poza, gozamina, zoriona eta abar), berriz, helburu pertsonaletan egon daitezkeen pertzepzioen aurrean. Horrela, ba, egokigarriak edo ez egokigarriak izan daitezke, inoiz ez txarrak edo onak. Izan ere, pertsona bat jaiotzen den momentutik norberaren bizitzan emozioak daude, eta ezinbesteko eginkizuna betetzen dute norbanakoaren nortasunaren eraikuntzan eta eragin truke sozialean (Aritzeta, Pizarro eta Soroa, 2008).

Emozioen garapen ebolutiboari dagokionez, haurtzaroko emozioak haurrek adieraz dezaketena baino askoz ere aberatsagoak dira, eta haiek izendatzen hasi baino lehen badakite emozio ezberdinak bereizten (Aritzeta, Pizarro eta Soroa, 2008). Emozio eta afektuen bitartez, nagusiekin zein kideekin komunikatzeko gaitasuna aberasten dute, eta poliki-poliki emozioak zein sentimenduak gorputz-hizkuntzaren bidez geroz eta hobeto adierazten hasten dira (Fusté eta Bonastrek, 2007). Dena den, emozioak ulertzeko biderik onena horiek esperimintatzea dela adierazten du Bisquerrak (2009).

Emozioen sailkapena (Aritzeta, Pizarro eta Soroa, 2008):

- Oinarrizko emozioak (primarioak): aurpegiaren espresio jakin batek eta aurre egiteko era tipiko batek ezaugarritzen dituzte.
- Emozio konplexuak (bigarren mailakoak): ez dute aurpegiaren espresio jakinik sorrarazten, ezta ekintzarako joera berezirik ere.
- Emozio atseginak (positiboak): jomuga bat erdiesten dute, eta emozio berak ematen duen ongizate eta gozamenari esker haiei aurre egiten diegu.
- Emozio desatseginak (negatiboak): helmuga bat blokatzen denean, mehatxu zein galera baten aurrean, eta indarra zein mugitzeko beharra izaten duten egoeretan bizkor eta aurre egitean sentitzen dira.

Bisquerrak (2009), aldiz, honako sailkapena egiten du: emozio positiboak (alaitasuna, maitasuna, poztasuna), emozio negatiboak (beldurra, pena, nazka, antsietatea, hira), zalantzezko emozioak (sorpresa) eta emozio estetikoak (artelanen bidez bizitutakoak, zeinak osasunerako emozio positiboen onura berdina sortzen duten).

Emozioak gizakiaren parte dira, baina gizartean eman zaien garrantzia ez da nabarmena izan. Dena den, badirudi gizartean pertsonaren adimenaren eta hezi beharreko aspektuen kontzepzioa astiro-astiro aldatzen ari dela. Horrela, hezkuntzan, emozioen lanketari tarte bat uztea funtsezkoa da, bizitzako alderdi guztietan konpetenteak diren pertsonak hezteko eta guztiontzako hezkuntza bat sustatzeko (Bisquerra, 2009). Gainera, hezkuntza sistemak eta familia nukleoak haurren garapen

intelektuala barmatzearekin batera, garapen emozionala, afektiboa eta soziala ziurtatu behar dute, etorkizuneko gizartearen premiei erantzungo dien hezkuntza integratzaile eta errealistaren bidez (Aritzeta, Pizarro eta Soroa, 2008).

6. HELBURUAK

Lana burutzeko orduan, zenbait helburu izan ditut kontutan.

Orokorrak:

- Psikomotrizitate arloa aurrera eramateko behar diren aspektu ezberdinak aztertzea, haurren garapena hobetze aldera.
- Mugimenduaren bidez, emozioak nola esperimentatu, bizi eta azaltzen dituzten behatzea.

Espezifikoak:

- Haurra eta haren garapena behatzea eta ulertzea.
- Ikastolan ematen den errealitatea nolakoa den analizatzea.
- Hezitzailearen papera aztertzea.
- Mugimenduaren bidez, haurrak nola komunikatu eta adierazten diren ikustea.

7. METODOLOGIA

Lana aurrera eramateko lehenengo egin nuen pausua, adituek esaten dutena irakurri eta aztertzea izan da, horrela, marko teoriko sakon bat osatuz. Honekin batera, nire helburu orokorrak eta espezifikoak adierazi, eta, praktikak burutu ditudan ikastetxearen testuingurua eta metodologia ezagutarazi dut, irakurleak ikastetxearen inguruko informazioa izateko.

Metodologia praktikoa eta analitikoa jarraitu dut: praktika psikomotorreko klaseetan lehen estuko behaketa aktiboa burutu dut, datuak txantiloietan jasoz. Ondoren, txantilo horiek aztertu eta teoriarekin alderatu ditut, horrela, nire ondorio propioak atera ahal izateko.

Ondoren, praktikak burutu ditudan ikastetxean behaketa ezberdinak burutzeko behaketa taula bat osatu nuen, gaiaren inguruko atalak kontutan izanik; behaketa

guztiaz azaldu eta teoriarekin konparaketa bat burutu dut, horrela, ondorio ezberdinak (emaitzak) adieraziz. Ondorioak kontutan hartuz psikomotrizitate praktika hobetzeko proposamenak egin ditut, haurren garapena hobetze aldera.

Jarraian, lanari sarrera eta gaiaren justifikazioa gehitu diot, eta, amaitzeko, lanaren laburpenarekin batera, bibliografia eta eranskinak.

Guzti horrekin, nire gradu amaierako lana bukatutzat eman dut, nire zuzendariaren laguntzarekin eta on iritziarekin.

8. BEHAKETAK

Atal honetan, Txantxiku Ikastolako psikomotrizitate saioan behatu ditudan esparru desberdinak azalduko ditut. Horretarako, ikasturtean zehar hamabi saio ezberdin behatu ditut, bi urteko hemeretzi ikaslek osatutako gela batean.

8.1 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN URRATSAK

Saio guztietan pausu berak proposatzen ditu hezitzaileak:

- **SARRERA-ERRITUALA:** haur guztiak bankuan edota lurtean eserita daudelarik, oinetakoak eta galtzerdiak kentzen dituzte, eta jarraian, guztion artean arauak birgogoratu, ea gogotsu dauden galdetu, eta bost minutuz hizketan aritu ondoren, ilara batean kokatzen gara kuxinez eginiko dorrea botatzeko.
- **ADIERAZKORTASUN MOTORRAREN FASEA:** Haur guztiak ilaran egoki kokatuta daudenean, irakasleak bat, bi eta hiru zenbatzean, haurrak ziztu bizian dorrea bota eta jolasari ekiten diote. Une honetan, irakasleak ea hurrek nola bota duten dorrea, guztiak animatu diren edo ez, etab. behatzen du eta ondoren, eraikinak dauden gunera abiatzen da.
- Saio guztian zehar behaketa egiten aritzen da, eta haurren bat arazoetan sartuz gero berarengana hurbiltzen da zer gertatu den galdetzera eta esku-hartzera. Horrez gain, haurren batek zerbaitetan laguntza eskatzen badio, edo norberak egindako eraikuntzak erakutsi nahi badizkio atentzio handiarekin abiatzen da haurrengana, zer eta nola egin duen galdetuz.
- **HIZKUNTZA BIDEZKO SEGURANTZA SAKONAREN FASEA:** "ISTORIOA": Saioa amaitzeko 5-10 minutu falta direnean ozenki abisatzen

die hurrei, jolasa laster bukatuko dela jakinarazteko. Ordua denean, haur guztiei jolasa amaitu dela esan eta amaiera errituala egiteko espaziora abiatzen dira. Bertan, zer egin duten, zer moduz pasatu duten, zer bizi izan duten, etab. galdetzen die, eta zenbait minutuz hizketan egin ondoren, ipuin bat kontatzen die. Ipuinaren ostean, haurren batek zerbait komentatu nahi badu lekua uzten die espresatzeko.

- AMAIERA-ERRITUALA: norberak bere oinetakoak eta galtzerdiak hartzeko eta janzteko eskatu, eta norbaitek laguntzerik nahi izanez gero lagundu egiten die. Guztiak prest daudenean, atera hurbiltzen gara, eta gela arruntera heltzean ura edan eta hamarretakoa jango dugula gogorarazten die. Amaitzeko, guztiok elkarrekin, gelara abiatzen gara.

Bestalde, garrantzitsua da esatea psikomotrizitate saioan bi irakasle aurkitzen direla, haurren tutorea eta laguntzailea. Dena den, praktikaldi garaian eta lan hau burutzeko behaketak egitera joaten naizenetan, laguntzailearen papera nik hartu dut.

Saioaren iraupenari dagokionez, bi urteko haurrak, astean behin (astelehenetan) joaten dira aretora hirurogei minutuko saioari ekitera, baina sarrera eta amaierako errituala dela eta, jolas sinbolikoari 30-35 minutu eskaintzen dizkiete.

8.2 ARETOAREN EGITURA

Aretoa, espazio zabala, altua, erakargarria, garbia eta argitsua izateaz gain, haurrek askatasun osoz eta inolako oztoporik gabe mugitzeko eta jolasteko toki eroso eta aproposa den espazio sinbolikoa da, txoko eta material espezifiko horitututa dagoena, alegia.

Gela bi espaziotan dago banatuta, batetik, kuxinak, espalderak, koltxonetak, eraikinak, etab. betetzen duten espazioa, haurrek jolas sinboliko zein motorrari ekiten dioten tokia dena, eta, bestetik, sarrera eta amaiera errituala egiteko eta istorioa kontatzeko espazioa, zeina espazio zabala den eta material gutxi batzuk aurkitzen diren.

Horrez gain, aretoaren iskina batean aurkitzen da material gehiengoa, haurren mugimendua eta desplazatzeko aukera ez oztopatzeko, eta haurrek haien nahi eta beharren arabera nahi dutena hartzeko. Dena den, zenbait material ezin dituzte erabili eta bertako armairuak ezin dituzte ireki. Horrez gain, ispilu handi bat kokatzen da hormaren erdian, haurrek nahi dutenean zer ari diren egiten ikusteko. Gelaren kontrako

aldean, aldiz, kristalera handi bat aurkitzen da kortinez estalia, zeinak ikastolako patiora jotzen duen.

Amaitzeko, gelak ez du apaingarri handirik, soilik 3-4 kartel, eta gelaren alde banatan, erdialdean, forratutako bi zutabe aurkitzen dira (Ikus 2. eranskina).

8.3 MATERIALA

Aretoan kolore, testura, forma eta tamaina ezberdineko material bigunak eta gogorrak daude; txoko ezberdinetan banatuta daude, haurraren eskura eta ikusgai (Ikus 2. eranskina). Material hauetariko batzuk finkoak dira, besteak mugikorak:

- Sarrera eta amaiera errituala egiteko espazioan: mahaiak, bankuak, esekitokia eta ipuinak aurkitzen dira.
- Jolas motor zein sinbolikorako espazioan: aparrezko kuxinak, oihalak, koltxonetak, horma-barrak, eraikinak, ispilua, pilota bigunak, espatak, arrapala eta uztailak aurkitzen dira.

8.4 HEZITZAILEAREN PAPERA ETA BEGIRADA PERIFERIKOA

Hezitzaileak behaketa aktiboari ekiten dio saio osoan zehar, haurrenganako interesa azalduz eta berarekin kontatu ahal dutela erakutsiz.

Entzute aktiboa, enpatia, autoritatea, konfiantza, sentiberatasuna, lasaitasuna, etab. erakusteaz gain, haurren behar eta zalantzak ulertzen dituela adierazi eta erantzun egoki bat bilatzen ahalegintzen da beti. Haurren beharrak eta gaitasunak kontutan hartzen ditu eta ez du inoiz inor behartzen zerbait egitera. Bestalde, haur bat iskanbila batean sartuz gero, haiei konpontzen uzten die eta posible ez dela ikustean esku-hartzen du, beti ere errespetu osoz.

Ez du haurren jolasean parte hartzen, baizik eta interes osoz zer den, nola egin duten eta zertarako balio duen galdetzen die, inoiz ere baloratu gabe edo berak zer den pentsatzen duen esan gabe. Haur batek aurrerapauso bat lortzen badu, konnotazio negatiboak eta positiboak erabiltzea saihesten du, baina lortu duenaren jabe dela adierazten du. Esaterako esaldi hauek esanez: ikusi dut egin duzuna, animatu zara, ze salto handia egin duzun, etab.

Horrez gain, haur bat denbora guztian gauza bera egiten ari bada, berarengana hurbildu eta beste zerbait proposatzen ahalegintzen da, beste gauza batzuekin esperimentatzeko asmoz.

Hezitzaileak begirada periferikoa mantentzen du saio osoan zehar, gauza guztiak egoki aztertuz eta haurra bere jolasean protagonista dela sentiaraziz. Haien behar eta nahiak entzun eta horiek betetzea du helburu.

8.5 ESPAZIOA ETA DENBORA

Haurrak haien behar, gogo eta gustuen arabera espazio batean edota bestean kokatzen dira, une horretan behar duten materialekin edota lagunekin. Bertan, denbora bat pasa ondoren, beste espazio batera mugitzen dira, beste gauza batzuk probatzeko asmoz.

Gainera, espazio batean kokatu ondoren, orokorrean, hurrek irakasleari begiratzen die bere arreta eskuratzeko edota egiten ari direna azaltzen diote, hezitzailea espazio horren jabe izan dadin. Dena den, aretoaren txoko batean, hau da, liburuak kokatzen diren tokian ezin dira ibili, ezin baitituzte liburu horiek erabili; beraz, bertara hurbiltzen badira, irakasleak bertatik mugitzeko eskatzen die. Horren arrazoia, jolasari ekiteko unea delako eta liburuak gela arruntean irakurtzeko aukera dutelako da.

8.6 EMOZIOAK

Ikasturte hasieratik ari dira emozio ezberdinak erakusten, esperimentatzen eta bizitzen. Hasiera batean, sorpresa, harridura eta poza ziren gehien erakusten zutena, orain, berriz, gauza ezberdinak egitera animatu ondoren, gehien bizi izan dituzten emozioak hauek izan dira: poztasuna, harrotasuna, haserrea, beldurra eta frustrazioa.

Bestalde, saioaren hasieran, urduritasuna, poza eta gogoia da gehien sentitzen dutena, baina saioa aurrera doian heinean, emozio horiek aldatu eta berriak bizitzen dituzte, gora behera ezberdinen arabera.

Guztien artean poztasuna da gehien bizi edo adierazi dutena, gustuko duten lekua izateaz gain, lagunekin jolasten aritzen direlako, gauza berriak esperimentatu eta probatzen dituztelako, haien beharrak eta nahiak azalarazten dituztelako, etab. Gainera, nahiz eta gora beherak izan, segituan ematen die buelta ekintza edo egoera horiei eta berriz ere, gustura eta egoki sentitzea lortzen dute.

Emozioen arabera jokatzeko dute, hau da, zerbait esperimentatu ondoren gustuko dutela ikustean, berriz ere errepikatzen dute ekintza bera, aldiz, egin dutena ez badute gustuko, beste zerbait egitera pasatzen dira.

Amaitzeko, nahiz eta emozioak adieraztea edo esatea zaila egin, aurpegian nola sentitzen diren garbi ikusten da, espresio handiak egiten dituztelako. Dena den, poliki-poliki nola sentitzen diren esateari ekin diote, irakasleari zein lagunei, eta, gainetik, gainontzekoak nola sentitzen diren ulertzen dutela adierazten dute.

Laburbilduz, emozioen kanporatzea prozesu progresibo bat da, eta lanketa egoki baten bidez haurrek emozioak kanporatzen ikasten dute.

8.7 BEHAKETA TAULAK

Puntu honetan, psikomotrizitate saioan egin ditudan behaketa taulen parametroak sailkatu eta azalduko ditut.

Lehenik eta behin, esan nahi dut, gelako behaketa orokorra izateaz gain, haur espezifiko batzuegan zentratu naizela, informazio gehiago eta zehatzagoa lortzeko asmoz. Haur hauen aukeraketa, jaiotze data eta sexua kontuan izanik izan da; beraz, lehenengo haurra Otsailekoa (mutila) da, bigarrena Maiatzekoa (neska), hirugarrena Irailekoa (mutila) eta azkena, berriz, Abendukoa (neska).

Dena den, haur bakoitzaren behaketaren azalpen orokorra banan-banan azalduko dut eta ondoren, talde guztiaren garapena edota salbuespenak azalduko ditut, modu honetan garbiago gera dadin (Ikus 5. eranskina).

1 Haurra:

Lehenengo saiotik erakutsi du aretora joatea gustuko duela, gela arruntean ezin dituen gauzak eta beharrak azaleratzeko toki aproposa delako. Esaterako, korrika egitea, altuera handitik salto egitea, dorreak botatzea, lurra kolpatzea, etab. gustuko dituelako.

Izugarrizko garapena eta autonomia duen umea da, eta horixe bera erakusten du saio guztietan zehar. Ez du irakaslearen arreta edo laguntza beharrik ekintzak egiterako orduan, bi aldiz pentsatu gabe gauzak egitera ausartzen delako, inolako beldurrik gabe. Gainontzeko kideen begirada segituan eskuratzen du egiten dituen ekintzengatik, eta horren jabe denean gustukoa duela ohartzen da eta sarritan haien begirada bilatzen du.

Eraikinei dagokionez, lehenengo egunetik lehena izan zen salto egiten eta bigarren saioan ere eraikin handitik salto egitera ausartu zen, inolako laguntzarik gabe. Hori gustuko zuela ikustean, saio guztietan intentsitate biziz aritu da salto egiten, batez ere txikitik. Gainera, izugarritzko oreka eta koordinazioa duela ikusten da egiten dituen ekintzetan.

Jolas motorrari zein sinbolikoari ekiten dio saio guztietan, eta gehienetan bakarrik aritzen da jolasean. Batez ere koltxoneta txikiak eta baloi bigunak lurrera botatzen aritzen da, eta azkenaldian ezpata bigunekin jolasean. Dena den, betiko 3-4 lagunekin elkartzen denean gustura aritzen da jolasean, baina ia beti iskanbila batean sartzen da. Alde batetik, besteen materiala nahi duelako edota kendu egiten duelako, eta, bestetik, gainontzekoen eraikinak puskatzen dituelako.

Horrez gain, kosta egiten zaio markatutako espazioak errespetatzea, erabili ezin diren materialak ez hartzea edota materialei erabilpen egokia ematea, barruan duen intentsitate handiagatik. Dena den, irakaslearekin hitz egin ondoren, zerbait lasaitzen da eta saioak aurrera joan ahala arauak ulertu dituela erakusten du.

Emozioei dagokionez, saio guztietan, salbuespenak salbuespen, hiru emozio bizi dituela ikusi dut. Hasteko, poza, gustuko duen tokia delako eta tentsioak askatzen aritzen delako. Bigarrenik, haserrea, iskanbila batean sartzen denean edota irakasleak errieta egiten dionean, eta, azkenik, harrotasuna, proposatzen den gauza oro lortzen duelako.

2 Haurra:

Lehenengo saiotik markatu du bere espazioa, eta nahiz eta lehenengo saioetan zehar gauza askorik egitera ez ausartu, gustuko duen lekua dela nabaritzen zaio.

Irakaslearen arreta, laguntza eta bere inplikazioa eskatzen du saio gehienetan, baina poliki-poliki garapena hobetzen ari da eta gauzak egiteko autonomia eskuratzen. Horrez gain, bere betiko lagunekin aritzen da jolasean eta jolas horietan haien begirada eskatzen du, egiten dituen gauzak erakutsiz edo azalduz.

Lehenengo unetik erakutsi du hasierako dorrea botatzea ez duela gustuko, baina bai, ordea, bera bakarrik zein lagunekin dorreak botatzen aritzea. Laugarren saioan ausartu zen eraikin txikitik laguntzarekin salto egiten, baina saioak aurrera joan ahala, beldurragatik edo ez duelako gustuko, ez da eraikinetara sarritan igo. Dena den, igotzerakoan laguntza eskatzen du salto egiteko orduan, eta soilik behin edo bitan egiten du salto.

Jolas motorrari zein sinbolikoan aritzen da bere lagunekin, kuxinak zein koltxonetak mugitzen eta erabilpen ezberdinak ematen, koltxonetetan salto egiten eta espalderak igotzen. Oreka eta koordinazio lantzen duen ekintzak egiten jarduten du, eta begi-bistakoa da egoki moldatzen dela, nahiz eta hasiera batean oreka mantentzea zaila iruditu. Horrez gain, markatutako espazioa eta materiala errespetatzen du, eta ez da iskanbilatan sartzen.

Emozioei dagokionez, saioetan zehar bizi izan dituen emozioak honakoak dira: poza, gustuko duen tokia delako eta lagunekin jolasten oso gustura aritzen delako; beldurra, eraikin txikira igotzerako zein salto egiterako orduan eta hasierako dorrea puskatzeko arduraz kontziente denean, eta azkenik, harrotasuna, eraikinetik salto egitea lortu duenean eta kuxinekin eraikin ezberdinak egiten dituenen.

3 Haurra:

Aretora joatea asko gustatzen zaiola nabaritzen da, oso pozik eta energia biziz hasten duelako saio guztiak, gustuko dituen gauzak eginez eta tentsioak askatuz.

Orokorrean, ez du irakaslea bere jolasean inplikatzeko, baina bere arreta eta begirada izatea gustuko du. Baita, kideen begirada izatea gustuko du, bera ere gai dela erakusteko.

Hasierako dorrea energia biziz puskatzen du, gustuko duen zerbait delako eta egunen batean dorrea botatzera heldu ez denean asko frustratzen da. Lehenengo saiotik ahalegindu da eraikin txikitik salto egiten eta hirugarren klasean berak bakarrik egitea lortu du, aldiz, eraikin handira sarritan igo arren, hamabosgarren saioan ausartu da laguntzarekin salto egiten, eta hortik aurrera sarri igo izan da salto egitera. Horrez gain, oreka eta koordinazio egokia duela ikusi izan du, nahiz eta hasiera batean oreka mantentzea zaila iruditu.

Jolas motorrari eta sinbolikoari ekiten dio, eta gustuko dituen ekintzak honako hauek dira: salto egitea, koltxoneta zein kuxinekin eraikinak egitea, espalderatan aritzea eta baloi zein espatekin jolastea. Gainera, salto egiten jarduten duenean ezik, denbora guztia lagunekin jolasten aritzen da, eta saio batzuetan zehar iskanbila batzuetan sartu izan da, gainontzeko kideekin sartu delako. Markatutako espazioa eta materiala errespetatzen du eta arauak ondo barneratuta dituela nabaritzen da.

Emozioei dagokionez, aipatu, saio guztietan emozio ugari bizitzen dituela. Hasteko, poza, gustura aritzen den tokia delako. Bigarrenik, beldurra, eraikinetatik bakarrik salto egiteko orduan eta eraikin handira igotzeak. Laugarrenik, harrotasuna,

salto egitean eta eraikin ezberdinak burutzean. Azkenik, haserrea, iskanbila batean sartzen denean edota zerbait lortzen ez duenean.

4 Haurra:

Ez du poztasun handirik erakusten aretora joaten garenean zein saioa hasten denean, baina dena den, ez da kexatzen, eta lagunei zein gelari behaketa sakonak egiten jarduten du.

Asko kostatu zaio gauzak egitera animatzea, beraz, kosta egin zait bere garapena zein den eta noraino heldu daitekeen ikustea. Hala eta guztiz ere, ekintzaren bat egiterako orduan, orokorrean, irakaslearen laguntza bilatzen du. Eraikinetatik salto egiteko, hasiera batean ez zuen hitzekin laguntzarik eskatzen, hau da, hezitzailea gerturatzen ez bazen leku horretan geldirik geratzen zen. Jarrera hori ikustean, laguntza eskatu behar dela adierazi genion eta orain laguntza eskatzea lortu dugu. Horrez gain, kideen begirada ez du bilatzen eta hezitzailea ez da bere jolasean inplikatzeko. Gainera, kideren bat berarengana gerturatzen ez bada, bakarrik jarduten du saioan zehar.

Hasierako dorrea botatzera ez da ausartzen eta eraikin txikitik bosgarren saiotik aurrera lortu du salto egitea, eta, aldiz, handitik hemeretzigarren saioan, beti ere laguntzarekin. Oreka eta koordinazioari begira, aldiz, eraikinetara igotzeko orduan eskailerak egoki igotzen ditu, eta salto egin ostean poliki-poliki oreka gehiago eskuratzen ari dela ikusi dut. Dena den, espalderak edo eskailerak igotzerako orduan ez du arazorik, baina jaisterako orduan bai, ez da ausartzen bakarrik jaistera.

Jolas motorrari ekiten dio, baina sinbolikoari gutxi. Eraikinetan zein koltxonetetan salto egiten jarduten du denbora gehiengoa eta gutxi batzuetan arrimatzen da kuxinetara edo beste materialetara. Kuxinekin jolasean aritzen denean, ez ditu eraikin handirik egiten baina berarentzat egindakoak asko sinbolizatzen du.

Markatutako espazioa zein materiala errespetatzen ditu beti eta ez da iskanbilatan sartzen. Gauzak behatzea nahiago izaten du jolasten aritzea baino, ene aburuz, bertan dagoen mugimenduagatik izan daiteke, beldur delako.

Emozioei dagokionez, esan, poztasuna eta harrotasuna sentitzen duela eraikinetatik salto egiten duenean eta beldurra, berriz, eraikinetatik salto egiteko eta dorrea botatzeko orduan zein bere inguruan mugimendu asko sentitzen duenean.

BEHAKETAREN ONDORIOAK

Laburbilduz, haurrak gela berdinean egon arren, asko nabaritzen da hilabeteen arteko ezberdintasuna. Urtarrilean jaiotako mutikoak, hasiera batetik ausardia eta izugarritzko energia zein bizitasuna erakutsi du. Maiatzean jaioa den neskatilari, asko kostatzen zaio gauza batzuk egitera ausartzea, baina poliki-poliki gauza gehiago egitera animatu da, gehienetan laguntzarekin. Iraileko mutikoari dagokionez, ordea, hasieratik erakutsi du gauzekiko interesa eta ausardia, eta segituan ikusi izan da bere eboluzioa. Amaitzeko, abenduko neskatilari hasiera batean zenbait gauzak beldurra eman eta gauza asko egitera ausartu ez arren, astiro-astiro ekintza gehiago egitera ausartu da, emaitza onak lortuz.

Talde guztiari dagokionez, oso ondo joan dira saio guztiak, gora beherak eta gatazka konkretuak egon badira ere. Talde oso jatorra da eta oso ondo moldatzen dira beraien artean, beraz, horixe bera da gela arruntean zein psikomotrizitate aretoan ikus daitekeena. Gainera, arazo edo iskanbila baten aurrean geroz eta hobeto konpontzen dira, enpatia puntu bat erakutsiz. Ondorioz, elkarrekin izugarri ikasi, esperimentatu eta egoki pasatzen dutela begi bistakoa da.

Garapenari begira, orokorrean, guztiak izugarri eboluzionatu dute. Hasiera baten leku ezezaguna zela ikusi arren, poliki-poliki esperimentatzen hasi eta gozatzeari ekin zioten, saio guztiak irribarre handi batekin amaituz. Dena den, emozio ugari izan dira bertan bizitakoak eta horiei esker gustuko dutena edo ez jakin ahal izan dute. Hori horrela, hemendik aurrera gehiago eboluzionatuko dutela ez dut zalantzan jartzen, gauza gehiago egitera ausartuko direlako, eta edozein zalantzaren aurrean hezitzailea alboan izango dutelako.

9. KONPARAKETAK

Nire ustetan garrantzitsua da teoria eta praktika uztartzea, are gehiago psikomotrizitatearen kasuan; mugimendua eta ekintzan oinarritu arren, funtsezko oinarri teorikoak baititu.

Jarraian saioetan zehar behatutakoa psikomotrizitatearen metodologia eta teoriarekin lotuko dut, praktikaren bidez ondorio teorikotara iristeko ahaleginean.

- Psikomotrizitate saioaren urratsak

Aucouturierrek (2011) zehaztutako bost urratsetatik lau betetzen ditu hezitzaileak: sarrera-errituala, adierazkortasun motorraren faseko edukiak, hizkuntza bidezko segurantzaren faseko edukiak (istorioa) eta irteera-errituala.

Dena den, atal bakoitzaren barruan ere desberdintasunak ikusi ditut. Hasteko, sarrera-erritualetan, berokiak eta oinetakoak kendu ostean, arauak birgogoratu eta haurren galdera edota iritziak entzun ondoren, dorrearen suntsipenera pasatzen da. Haurren kuxinezko dorrea intentsitate biziz bota ostean, haurrek jolas libreari ekiten diote, eta 5-10 minutu falta direnean jolasa laster amaituko dela jakinarazten die hezitzaileak haurrei. Ordua denean, amaiera-errituala egiteko txokora hurbiltzen dira eta hizkuntza bidezko segurantzaren faseko edukira pasatzen dira. Haurrei zenbait galdera egiten dizkie irakasleak eta zenbait minutuz hizketan egin ondoren, gela arruntetik hartutako ipuin bat kontatzen die. Dena den, aukeraketa egiterako garaian ez ditu kontutan hartzen Aucouturierrek aipaturiko bi erregistroak. Bukatzeko, oinetakoak eta berokiak jantzi eta gelara itzultzen dira.

Laburbilduz, amaiera-erritualetan, haurrei denbora tarte bat eskaintzen zaie bizi izan dutena azaltzeko, baina ez dute eraikinen edota marrazkien bidez islatzen, hau da, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren faseko edukia ez da betetzen.

Amaitzeko, esango dut, bi urteko haurrak astean behin joaten direla aretora, hirurogei minutuko saioari ekitera. Guztira, hemeretzi haur eta bi hezitzaile bertaratzen dira, hamar haur irakasle bakoitzarentzat; beraz, Aucouturierrek (2011) zein Arnaiz, Rabadán eta Vivesek (2001) proposatzen dutena betetzen da.

- Aretoaren egitura

Adituek esaten dutena kontutan izanik, aipatzekoa da ez dudala ezberdintasun handirik ikusi, aretoaren egitura egoki pentsatuta dagoelako eta haurren garapena hobetzeko materialez hornituta dagoelako.

Lehenik eta behin, aretoa haurren eskura ipintzen den txoko eta material espezifiko hornitutako espazio sinbolikoa da, eta bertako helburuak zein haurrak egoki hazteko eta garatzeko premiei eta beharrei erantzuten laguntzeko toki aproposa da.

Aucouturierrek (2017), aretoaren egituraketa espazio eta denbora baliabideei esker planteatzen du, eta ikastolan ere, bi espaziotan bereizten da aretoa. Batetik, haurren adierazkortasun motorrerako prestatutako tokia, eta bestetik, hizkuntza-

adierazkortasuna bideratzeko tokia. Baina azken honek ez du bere funtzioa betetzen adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea ez baita eman behatu ditudan saioetan.

Psikomotrizitate gela hormek zehaztutako espazioa izateaz gain, gela goxoa eta eroso da, giro atsegina bultzatzen du, gauza guztiak bere tokian aurkitzen dira, argiztatze egokiaz eta mugitzeko toki zabal eta handiaz baliatzen da, erakargarria da, arreta handiz zaindua eta material garbiekin, temperatura egokia du eta eroso da; beraz, haurrek bertan egoteko plazerra sentitzen dute.

Fusté eta Bonastrek (2007), espazioa lau txokoetan banatzen dute, eta ikastolan hauetatik hiru betetzen dira, besteak beste: espazio biguna, gogorra eta espazio sinbolikoa. Hau da, ez dute irudikapenera bideratutako espaziorik; honek, sentipen sentsomotorretik urrundu eta pentsatzen hasten lagunduko lioke.

- Materiala

Aucouturierrek (2011) egiten duen sailkapenarekin alderatuz, ikastolako aretoan, ez da aurkitzen adierazkortasun grafiko eta plastikorako materialik, soilik altzariak, material biguna eta gogorra aurkitzen dira.

Bestalde, aretoan helburu jakin bat betetzen duten material ezberdinak aurkitzen dira. Hala ere, faltan somatu ditut zenbait material: arbela, panpinak, zurezko makilak, ontziak eta perkusiozko instrumentuak. Dena den, material ugari eskura izan arren, bi urteko haurrak ez dira gai hauetako batzuk erabili edo manipulatzeko. Adibidez: uztailak eta plastikozko baloiak, min hartu edo egin dezaketelako.

- Hezitzailearen papera eta begirada periferikoa

Hezitzailearen paperari dagokionez, garbi dago eragilea eta behatzailea dela aldi berean, hurrei babesa eta konfiantza osoa transmititu eta haien beharrei erantzun positibo bat ematen ahalegintzen delako. Begirada periferikoa mantentzen du saioan zehar, gauza guztiak egoki aztertuz eta haurra bere jolasean protagonista dela sentiaraziz. Dena den, Berriozabalek (2018) aipatzen dituen begirada periferikoa analizatzeko parametroak ez ditu zehatz-mehatz betetzen: psikomotrizistaren erabilgarritasuna eta presentzia argia egiteko parametroak, norberaren esku-hartzeak behatzeko parametroak eta taldeko esku-hartzeak behatzeko parametroak. Horren arrazoia, hezitzailea haur askoren eskuetan dagoelako, eta egunaren arabera, haurrak oso aldatuta sentitzen direlako da.

Aucouturierrek (2011) dioten bezala, hurrek une oro bilatzen dute komunikazioa eta hezitzailea horixe hautematen eta erantzun egoki bat bilatzen saiatzen da. Horrez gain, Aucouturierrek (2011) eta Palacios eta Paniaguak (2005) aipatzen duten konfiantza finkatzen eta hurrek berarekin kontatu ahal dutela sentiarazten die, haien behar, situazio, emozio eta abarrei erantzunez.

Bestalde, Aucouturier, Darrault eta Empinet-ek (1985) diotenari eutsiz, hezitzaileak hurren jolasean ez du parterik hartzen, baizik eta galderen bitartez, interesa erakutsi eta jolasaren protagonistak sentiarazten die.

Nire ustetan, ikastola eta eskola guztietako psikomotrizitate saioa emateko gai honen inguruko espezialista izatea ezinbestekoa da, baina egun oso gutxi dira eskola edota ikastolako psikomotrizista espezializatuak. Horrela, ezinezkoa da hezitzailea psikomotrizitateko gelan igarotzea bere bizitza profesional osoa, horrez gain, tutorea ere badelako.

Irakasleak bat egiten du adituek dioten puntuekin, adibidez: entzute aktiboa eta enpatikoa izatea, sentibera, onespina eta onarpena erakustea, hizkuntza garbia eta zehatza izatea, begirada lasaia transmititzea, seguru eta baloratuak sentiaraztea, inondik inora ez estereotipatzea edota gutxiatea, etab.

Laburbilduz, naiz eta espezialista ez izan, saioak aurrera nola eraman eta bere papera zein izan behar den egoki daki, gora beherak direla medio. Dena den, bere ibilbidean zehar gauza asko ditu ikasteko eta zenbait puntu zehatzago lantzeko.

- Emozioak

Garbi dago emozioak gainontzekoekin komunikatzeko tresna dela, eta haien bidez nola gauden edo nola sentitzen garen adierazten dugula; beraz, emozio ezberdinak bizitzea eta esperimintatzea ezinbestekoa da horiek ulertzeko eta azaltzen jakiteko.

Autoreek adierazten duten sailkapenari dagokionez, hurrek saio osoan zehar emozio ezberdinak bizitzen dituzte, emozio estetikoak izan ezik. Modu horretan, haien interesak, gustuak, sentimenduak, etab. zeintzuk diren adierazten eta kanporatzen dituzte.

Dena den, egia da sarritan ez dugula denbora tarte bat eskaintzen haien sentimenduei eta emozioei; beraz, hezkuntza esparruan arlo honi inportantzia gehiago eman beharko litzatekela iruditzen zait.

10. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, hezitzaileak psikomotrizitate saioak egoki bideratzen dituela ikusi dut eta hurrekiko hartzen duen papera eta eginbeharrak ederto kudeatzen dituela garbi dago. Haurrengan pentsatzen du haien prozesuak aberasteko eta indartzeko, inoiz inor behartu gabe. Behaketa sakona egiten jarduten du, eta hurrek laguntza eskatuz gero edo egoera larriren batean solik esku-hartzen du.

Horrez gain, zerbait desegoki irtenez gero edota haur batek premia bereziren bat behar izanez gero, hurrengo saiorako gauzak beste modu batera planteatzen ditu, emaitza ezberdinak ikusteko. Gainera, saio guztiak egoki aztertu eta hausnarketa sakon bat egiten du, aurreko saioa egunerokoarekin alderatuz, horrela, ondorio ezberdinak ateratzeko eta hobetzeko asmoz.

Hezitzaileen kasuan, gaiaren inguruko informazioa edota formakuntzak jasotzea beharrezkoa ikusten dut, gauzak hobetzeko asmoz eta bere betebeharrak ahalik eta hoberen betetzeko.

Aretoaren egituraketa, denbora eta espazioarekin jarraituz, haurren premia, plazerra, beharrak eta garapena lortzera bideratua dago, eta haurren mugimendua eta desplazatzeko aukera oztopatuko duen ezertxo ere ez da aurkitzen. Materialari dagokionez ordea, bi urteko haurrak direla kontutan izanik, zaila da bertan aurkitzen den material guztiaz baliatzea, baina dena den, material kantitate gehiago zein berriak txertatzea egokia ikusten dut, esate baterako, uztaiak eta panpinak. Horrela, hurrek gauza ezberdinekin esperimendatzeko eta jolasteko aukera paregabea izango dute, emozio ezberdinak biziz.

Aurreko guztia kontutan izanik, jolasaren bidez, motrizitatea eskuratu, ongi pasatu, sentimenduak eta emozioak adierazi, materialak arakatu eta esperimendatu, norberaren limiteak ezagutu eta abar egiteko aukera paregabea dugu. Nire ustetan, behatu ditudan saioak egoki bideratzen direla baina hobekuntza eta berrikuntzak txertatu daitezkeela ez dut zalantzan jartzen, haurren motibazioa sustatzeko eta haien garapena indartzeko. Horretarako, jarduera ezberdinak planteatu daitezkeela uste dut, adibidez, kuxinekin zein materialekin ibilbide zein proba ezberdinak egitea edo ipuin motorra garatzea. Horrez gain, haurren behar zein interesetatik abiatu, eta haien gustuko objektuak ezarri edota ekintzak egin daitezkeela pentsatzen dut.

11. PROPOSAMENAK

Aurreko guztia kontutan izanik, hona hemen nire hobekuntza proposamenen zerrenda.

- Lehenik eta behin, beharrezkoa ikusten dut psikomotrizitateko saioak ematen dituzten hezitzaileek gaiarekiko formakuntza jasotzea, haurrentzako psikomotrizitateak berebiziko garrantzia duelako eta txikitatik egoki eboluzionatzen joan behar direlako, beti ere, adinari eta beharrei egokitutako materialak eta ekintzak ezarriz zein eginez.

Hezitzaileen artean informazioa partekatzea ezinbestekoa ikusten dut: metodologiaren inguruko zalantzak, proposamenak, etab. elkar banatzeko eta elkarri laguntzeko helburuarekin. Horrela, formakuntza espezifikokoaren hutsunea nolabait gutxitu daitekeela uste dut.

- Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea betetzea garrantzitsua iruditzen zait, haurrak hitzez gain, poliki-poliki eraikinetan zein paperetan bizi izan dutena adierazteko, norberak ahal duen moduan. Horrela, denborarekin ohitura hartzeko eta askatasun osoz adierazteko.

Horrela, deszentratze prozesuari esker, hurrei ekintza fisikotik irudikapen mentalerako pausua ematen laguntzen die, eta, bera eta kanpoko mundua bereiziko ditu. Haurra pertsonak eta objektuak asimilatzeari ekiten dio, eta, bere afektibitatearen eta maitasun- zein gorroto- sentimenduaren arabera, bereganatu edota deformatu egiten ditu. Hizkuntza-eboluziori esker, deszentratzea gauzatu baino lehen, hizkuntzak ekintzari laguntzeko funtzioa du, poliki-poliki haurrak ekintzen hizkuntza gaindituz, zentzua duen hitz bat osatuz, alegia.

- Psikomotrizitatea lantzea eta jolastea funtsezkoa denez, psikomotrizitateko saioaren iraupena luzatu egingo nuke, edota astean behin joan beharrean, birritan bertaratu. Modu horretan, psikomotrizitate saioko urratsak egoki eta denboraz betetzeaz gain, haurrak gela arruntetik atera, eta bertan baliatzen ez diren materialekin jolasteko aukera eskaini, eta haien beharrak eta nahiak beste modu batera azaltzeko aukera emateko.

- Saioaren amaiera aldera, hezitzaileak ipuina aukeratzeko orduan, Aucouturierrek (2011) proposatzen dituen bi erregistroak (larrimina handitzea eta segurantzaren oinarrietara itzultzea) jarraitzea funtsezkoa iruditzen zait, horrela,

narrazioari balio dramatikoak emateko eta segurantzaren emozionala sortzeko. Hots, ipuinak arrazoi eta helburu jakin batekin aukeratzea, haurrentzako garrantzitsua baita ipuina haiek bizitako istorioekin erlazionatzea, eta mundu sinbolikotik aldendu eta errealitatera itzultzeko unea eskaintzeko. Esaterako: Txano Gorritxo, Erpurutxo, Hartz Txiki eta Hiru Txerritxoak, bizitzako gai garrantzitsuak jorratzen dituztelako eta erasotzailea gainditzen dutelako, haien arazoei aurre eginez.

- Saioak aurrera joan ahala, haurrei, aretoan aurkitzen diren material gehiago eskaintzea baliagarria iruditzen zait (sokak, panpinak, uztaileak, etab.), era horretan, beste gauza batzuekin esperimendatzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen diegulako, sormena eta irudimena irabaziz. Ildo beretik, aurkitzen diren zenbait materialen kantitatea handitzea egokia ikusten dut, baloi bigunak eta ezpaten kasuan adibidez. Gela biziaren kontzeptua praktikan jartzea funtsezkoa da; hezitzaileak behaketaren bidez antzemango ditu haurren beharrak, eta, materiala aldatzen joango da behar hauetara egokitzeko.

- Amaiera-erritualean, haurrekin hitz egiterako orduan, galderak orokorrean egiteaz gain, haurrei banan-banan zer egin duten edota norekin aritu diren galdetzea proposa ikusten dut, haiek protagonista sentiaraziz. Horrez gain, hezitzaileak ere, haurrak egin duten hobekuntzak edota ekintza berriak ozenki aipatzea, kontutan izan duela eta haiei behatzen aritu dela jakinarazteko.

- Hezitzaileak, psikomotrizitatearen inguruko behaketa taula bat izatea parametro anitzekin garrantzitsua ikusten dut, bere egitekoa zein planteatutako helburuekin bat egiten ari den ikusteko eta hori gertatu ezean gauzak hobetzeko. Baita, haurren eboluzioa eta garapena ikusteko, eta ikasturtean zehar norberak egin duen eboluzioa egokiago ikusteko.

- Azkenik, emozioei garrantzia gehiago ematea, hots, nahiz eta haurrek saio osoan zehar emozio anitzak bizi, hezitzaileak ez ditu planteatzen emozioak lantzerako bideratutako ekintza espezifikoak, eta, nire ustetan, interesgarria izango litzateke. Adibidez, ipuin motorra; haurrak ipuinaren protagonista eta antzezlea bihurtzen direlako, modu atsegin eta dibertigarri baten bidez. Gainera, hainbat arlo landu daitezke eta sinbolizazioaren bidez, emozio eta mugimendu ezberdinak bizitzera heltzen dira. Bestalde, aretoan aurkitzen diren materialarekin baliatuz, ibilbide anitzak egiteko aukera paregabea dago. Ibilbide hauei izen ezberdinak eman daitezke, esaterako, aretoa zirku bat bihurtuz, horrela, haurrek zenbait proba eta oztopo gainditu beharko dute, helmuga

batera iritsi arte. Horren bidez, haurrei motibazioa, irudimena eta sormena garatzeko aukera eskaintzen diegu, lagunen artean une atsegin bat biziz.

Horrekin batera, haur bati zerbait gertatzen zaionean edota egoera zein ekintza berri bat egiten duenean, nola dagoen galdetzea eta bere emozioei garrantzia ematea aproposa ikusten dut, horrela, haurrek haien emozioak zein sentimenduak gorputz-hizkuntzaren bidez adierazten hasteko eta komunikatzeko gaitasuna aberasteko.

Laburbilduz, ene aburuz, orokorrean, arlo guztietan gauza ugari daude hobetzeko, etorkizun hobea baten bila. Beraz, une oro haurrekin pentsatu behar dugula iruditzen zait, haien premia eta garapena hobetzeko eta norbera gustura sentitzeko, haur zein helduon ongizatea bermatze aldera.

Psikomotrizitate gela hobekuntza hauek txertatzen hasteko toki egokia dela uste dut, batetik, psikomotrizitatearen bidez gainontzeko arloekin lotura estua gauzatzen delako, eta, bestetik, mugimenduari garrantzia gehiago emateko eta norberaren beldurrak gainditzeko. Baita, mugimenduaren bidez emozio anitzak bizitzen jarraitzeko, zer duten gustuko eta zer ez esperimendatzeko.

12. ERREFERENTZIAK

- Abad, J. (2011a). Experiencia Estética y Arte de Participación: Juego, Símbolo y Celebración. *La educación artística como instrumento de integración intercultural y social*, 37. Berreskuratuta: http://www.oei.es/artistica/experiencia_estetica_artistica.pdf
- Agudo, I. (1990). El juego en el área de la expresión corporal. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, (7), 101-111. Berreskuratuta: https://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1250180694.pdf
- Antero, A. (2015). *Konfiantzaren pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa*. Arrasate, Espainia: Elkar.
- Aritzeta, A., Pizarro, M. eta Soroa, G. (2008). *Emozioak eta heziketa*. Donostia, Espainia: Erein.
- Arnaiz, P., Rabadán, M., eta Vives, I. (2001). *La psicomotricidad en la escuela: una práctica preventiva y educativa*. Archidona, Malaga: Aljibe.
- Aucouturier, B. (2011). *Aucouturier metodoa: ekintza-fantasmak eta praktika psikomotorra*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.
- Aucouturier, B. (2017). Aucouturierren Psikomotrizitate Praktikaren helburuak, eta hezkuntza-saioaren oinarriak. *Hik Hasi*, 9-12.
- Aucouturier, B., Darrault, I., eta Empinet, J. L. (1985). *La práctica psicomotriz: Reeducción y terapia*. Madril, Espainia: Científico Médica.
- Azkarate, E. (2014). Rafael Cristobal: "Ez dago zigortu beharrik umeak gauzak ikas ditzan". *Goiena*. Berreskuratuta: <https://goiena.eus/debagoiena/1400165011708-rafael-cristobal-ez-dago-zigortu-beharrik-umeak-gauzak-ikas-ditzan>
- Beñarán, A. (2017). Práctica psicomotriz educativa: Aucouturier y Winnicott. *Cuadernos de psicomotricidad*, (54), 7-34.
- Beñarán, A. (2017). Arreta goiztiarra eta psikomotrizitate-praktika. Gogoeta bat. *Hik Hasi*, 42-44.
- Berriozabal, M. (2018). La mirada periférica. *Cuadernos de psicomotricidad*, (55), 28-34.

- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Madrid, España: Síntesis, S.A.
- Bonastre, M., eta Fusté, S. (2007). *Psicomotricidad y vida cotidiana (0-3 años)*. Barcelona, España: Graó.
- Cremades, M. A. (2017). Nor naiz ni? Gorputza bizi eta pentsatzea psikomotrizitate-terapian. *Hik Hasi*, 51-55.
- Cremades, M. A. (2018). El psicomotricista como adulto maleable: la función del terapeuta en la evolución de las representaciones internas. *Cuadernos de psicomotricidad*, (55), 9-16.
- Dominio, G. (2018). Señoras y señores... en juego. *Cuadernos de psicomotricidad*, (55), 21-27.
- Font, C. (2009). Lasaitasun eta segurtasun fisiko eta afektiboa ematen dituen espazio bat eskaintzen badiegu, haurrak diren-direnean azalduko dira. *Hik Hasi*, 134. Berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090101/font-carles-lasaitasun-eta-segurtasun-fisikoa-eta-afektiboa-ematen-duen-espazioa-eskaintzen-badugu-haurrak-diren-eran-azalduko-dira>
- Fuentes, M. J., eta Melero, M. (1992). Las amistades infantiles: desarrollo, funciones y pautas de intervención en la escuela. *Investigación en la Escuela*, 16, 55-67.
- Hik Hasi, editoriala, (2004). AUCOUTURIER, Bernard: elkarrizketa. *Hik Hasi*, 84, 14-21. Berreskuratuta: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2004/01/1498220262-084.%20alea.pdf
- Hik Hasi, editoriala, (2016). Jolas sinbolikoa, adimenaren oinarri. *Hik Hasi*. Berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20160808/jolas-sinbolikoa-adimenaren-oinarri>
- Maldonado, M. (2008). *La psicomotricidad en España a través de la revista Psicomotricidad-CITAP* (Tesi doktora). Bartzelonako Unibertsitatea.
- Monzittu, M. (2018). El registro simbólico en psicomotricidad: El rol del psicomotricista respecto al desarrollo del registro simbólico en los niños. *Cuadernos de psicomotricidad*, (55), 17-20.
- Oñate, I. (2016). Ikasleek eraikitako ikaskuntza metodoa. *Argia*. Berreskuratuta: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2523/konfiantzaren-pedagogia>

Ostau de Lafond, D. (2017). Una experiencia psicomotriz desde Colombia. *Cuadernos de psicomotricidad*, (54), 46-53.

Pacheco, G. (2015). *Psicomotricidad en educación inicial*. Quito, Ecuador: ISBN.

Palacios, J., eta Paniagua, G. (2005). *Educación Infantil: Respuesta educativa a la diversidad*. Madril, Espainia: Alianza.

Perez, J. (2017). Bernard Aucouturierren hitzaldia: "Jolasa, haurren sorkuntza". *Hik Hasi*, 18-22.

Txantxiku Ikastola (2016). Ixutu – Konfiantzaren Pedagogia. Berreskuratuta: <https://www.txantxikuikastola.eus/ixutu>

Txantxiku Ikastola (2016). Ixutu Proiektua. Berreskuratuta: https://www.txantxikuikastola.eus/ixutu_proiektua

Txantxiku Ikastolako Hezkuntza Proiektua, 2016, Oñati.



13. ERANSKINAK

1. Eranskina

Gela arruntaren espazioak eta materialak





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





2. Eranskina

Psikomotrizitate gelaren espazioak eta materialak





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE



3. Eranskina

Txantxiku Ikastolako testuingurua

Txantxiku Ikastola, 1967 sortu zen eta gaur egun guraso, langile eta laguntzaileez osatutako herri-onurako Oñatiko hezkuntza kooperatiba da; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako (0-18 urte) ikasleei giza baloreetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen zaie bertan.

Santa Ana (San Juan kalea) eta Plazako (Lege Zaharren Enparantza) eraikinetan dago banatuta. Santa Ana eraikinean, 0 eta 12 urte bitarteko (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) haurrak daude eta plazakoan, berriz, 12tik 18 urte bitartekoak (DBH eta Batxilergoa). Egun, 992 ikasle, 85 langile, 549 familia eta 126 laguntzailek osatzen dute hezkuntza kooperatiba.

Txantxiku Ikastola, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat. Gainera, hezkuntza eta hizkuntza proiektuaren ardatza euskara izanik, pertsona eleanitzak hezi nahi ditu, beste hizkuntzaren beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioa (euskara) eta kontaktuko hizkuntzaz gain (gaztelania), atzerriko hizkuntza batean (ingelesa) bere kasako erabiltzaile maila eta beste batean (frantsesa) oinarritzko erabiltzaile maila lortu nahi du. Horrekin guztiarekin, hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea garatu nahi da.

Era berean, ikastolan, ikasleen heziketa integrala lantzen dute, aniztasuna kontuan hartuta eta familiarekin elkarlanean ikasleek bizitzari aurre egiteko behar dituzten kompetentzia orokorrak garatuz. Hau guztia, etengabeko hobekuntzan ari den langile-talde egonkorrek kudeatzen du.

Ildo beretik, Oñatiko hezkuntza kooperatiba integral eta euskalduna da. Mundura irekia den eta herrian errotuta dagoen pertsona euskaldun, kompetente, kooperatibo, konprometitu eta parekideez osatutako hezkuntza komunitatea. Horretarako egiten duten hautu pedagogikoa konfiantzaren pedagogian oinarritzen da: eredu humanista, irekia, integratzailea, berritzaile-aurrerakoa, aktiboa-ekintzailea, parte hartzailea eta kooperatiboa. Antolaketa hautuari dagokionez, ordea, kooperatiba integrala osatzen dute: guraso, langile eta laguntzaileez osatutako hezkuntza komunitate bat.

4. Eranskina:

Txantxiku Ikastolako metodologia

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia, etapa honetarako adimenaren gaitasunak, nortasunaren ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, gizarteratze eta harremanetarako oinarriak lantzen hastea da. Ikastolako hezitzaileek garbi dute haur bakoitzak bere erritmoa duela eta hori errespetatu beharra dagoela; beraz, haien lana bide horretan laguntzea eta gidatzea izango da, behaketan oinarrituta eta haur bakoitzak bere garapenean dituen beharrei erantzunez.

Ez dute zalantzan jartzen haurra berezko potentzialitatez eta bere kabuz ikasteko gaitasun eta desioarekin jaiotzen dela eta jolastuz, esploratuz, imitazioz, ikertuz eta esperimintatuz ikasten duela. Gaitasun horietan konfiantza jarriz hezi behar dituzte haurrak, euren buruan zein besteengan sinetsiz, bizitzan zehar sortuko zaizkien erronkei eta zailtasunei erantzuteko ahalmena garatzeko asmoz.

Ilido beretik, Txantxiku Ikastolak izugarritzko garrantzia ematen dio mugimendu askeari, haurrak bere motrizitate guztia bere kabuz garatzeko gai delako, hain zuzen ere. Eta, haurra era aske batean mugi dadin, hezitzaileok baldintzak sortu behar ditugu.

KONFIANTZAN HEZTEN – IXUTU PROIEKTUA

Badira hiru urte Txantxiku ikastolan Haur Hezkuntzan eraldaketa pedagogiko sakon batean murgildu direla. Irakasleen, gurasoen eta ikasleen egitekoa, lan egiteko modua, espazioak, denborak eta beste zenbait aspektu aldatu egin dira eguneroko praktika pedagogikoan.

2016/2017 ikasturtean Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzako etapa, proiektu berritzaile baten murgildu zen: lehenengo ikasturtean, 0-6 urte bitartean ezarri zen. Bigarrenengan, aldiz, lehenengo mailara egokitu zuten, eta hirugarrenengan, berriz, bigarren mailara. Bide honek zentzua izan dezan, ezinbestekoa da poliki-poliki Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan jarraipena ematea, eta egun, horretan ari dira.

Eremu zabalak haurrari berezkoak dituen senak lantzeko aukera anitzak emango dizkionaren ustean oinarritzen da metodologia berri hau. Egiturek zailtasun maila ezberdinetako erronkak proposatzen dizkiote, bere burua frogatuz eta mugak gaindituz aurrera joan dadin. Gainera, adin tarte ezberdinetako haurrekin jardunean aritzeko aukeraz gozatuko du, horrela, beste instintu batzuk piztu eta garatuko dituelarik. Eta,

testuinguruarekiko sortzen den konfiantza, hezitzaileekiko eta ikaskideekiko garatzen duena bezain besteko garrantzitsua izango da.

Ixutu proiektua, konfiantzaren pedagogian oinarritutako Haur Hezkuntzarako proiektu berria da, eta hauek dira pedagogia honen ildo nagusiak:

- Haurra bere osotasunean garatzea. Haurrak era autonomoan garatzeko gaitasuna du eta gaitasun honetan konfiantza izatea da pedagogia honen ardatz nagusia. “Irakatsi eta ikasteko prozesua arrakastatsua izan dadin, aurretiaz eta ezinbestean bermatu beharreko baldintza da konfiantza” (Antero, 2015: 26).
- Haurra da protagonista bere garapenean eta heldua (irakaslea) bidelaguna. Ikaslearen lana ingurua ikuskatzea, behatzea, laguntzea, jarraitzea, babestea, etab. da, haurrek autonomia osoa dutelako. Beraz, irakaslea ezin da egon, uneoro, ikasle guztiak zaintzen, haien galderak erantzuten, egindakoak zuzentzen, etab., haurrek aholkuak behar dituzte eta ez aginduak (Cristobal In Azkarate, 2014).
- Umearen erritmo biologikoekiko, kognitiboekiko eta emozionalekiko errespetua. Ikasgelak eta zentroak haurren erritmoak eta beharrak errespetatu behar ditu, eta familiek, haurren eguneroko bizimoduan duen beharren berri eman behar dio irakasleari (Paniagua eta Palacios, 2005).
- Egitasmo arkitektonikoak, espazioaren antolakuntza zabalak adin ezberdinen arteko elkarrekintza sustatzen du eta haurra esploraziora gonbidatzen du. Espazioak eta horren antolaketan izugarrizko garrantzia du, nola ikasleen ikasprozesuan hala bertan elkartzen direnen arteko harremanean eta ongizatean. Bertan, argitasuna, irekitasuna, espazioaren eta bertan dauden altzarien malgutasuna eta mugikortasuna, etab. kontuan hartu beharreko ezaugarriak dira. Konfiantzaren Pedagogian, ezaugarri horietatik guztietatik ez ezik, planteamendu arkitektonikoak planteamendu pedagogikoari erantzun behar dio, eta ez alderantziz. Hots, kontua ez da ditugun espazioetan gure saioak nola antolatu, alderantziz baizik (Antero, 2015).
- Espazioaren antolaketak umearen garapen integralean duen garrantziaz jabetzea. Hori horrela, espazioaren eta materialaren antolaketa funtsezkoa da, eta horretarako, haur hezkuntzako etapako ikasgelak esparru edo txoko ezberdinetan egon behar dira banatuta, zeina bakoitzean jarduera anitzak gauzatzeko eta garatzeko aukera eskaintzen duen. Era berean, esparru lasaiak

eta babestuak egotea ezinbestekoa da, haurrak haien lasaitasuna eskuratzeko (Paniagua eta Palacios, 2005). Metodologia honen bitartez, haurrek askatasun osoz eta bere nahiaren arabera, egun bakoitzean zein eremutan arituko diren erabakiko dute, eta gainera, saioaren erdian txokoz lekualdatzeko eskubidea izango dute, baina beti ere haurrek adimen anitzak dastatzen dituela baieztatuko du irakasleak (Oñate, 2016).

- Ikastolan familiaren presentzia areagotzea, eta elkar harremanak indartzea. Ikastolako dinamikan eta egunerokotasunean familiarekiko hurbiltasuna, haien partehartzea indartzea eta irakasle-familiaren arteko harremanak konfiantzan sendotzea. Ildo honetatik, ikastolak familiarekin harreman estua izatea ezinbestekoa da, haurrak ikastolako hezitzaileengan konfiantza izan dezan. Horretarako, familia ikastola barruko espazioetara sartzea, familiak ikastola barruko jardueretan parte hartzea, hezitzaileok familiarekin sarri komunikatzea, etab. beharrezkoa da, eta haurrak hori guztia ikustean konfiantza sumatzen du. Ikaslea ikastolan konfiantza-giroan senti dadin, familiarekiko lotura horiek eraikitzea eta sustatzea hezitzaileon betebeharrak garrantzitsuak dira (Antero, 2015). Familia eta hezitzaileen arteko erlazioa ezinbestekoa da haur hezkuntzan; geroz eta txikiago izan haurra, orduan eta estuagoa izan behar da guraso eta irakasleen arteko harremanak (Paniagua eta Palacios, 2005).
- Adin ezberdinetako haurrak harremanetan jartzea, elkarrekiko interakzioan batzuk besteengandik ikas dezaten, elkar lagunduz eta imitatuz. Bizi ziklo osoan zehar, adiskidetasun erlazioak funtsezkoak dira haurren garapen intelektual, afektibo eta sozialerako (Melero eta Fuentes, 1992).
- Senen lanketa. Pedagogia eredu honek, haurrak berezkoak dituen senen lanketa sustatzen du: atxikitze sena, esploratzeko sena, erasotzeko sena, ihes egiteko sena, zaintzeko sena, kide izateko sena, sexurako sena, etab. Horiek pizten direnean, haurrak igortzen dizkigun seinaleak identifikatzen jakin eta erantzun egokia ematea garrantzitsuak izango dira haurren garapen integralerako. Hori horrela, "Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspegitik funtsezkoa da haurrari pizten zaizkion senei modu sentikor eta egokian erantzutea" (Antero, 2015: 70).

Amaitzeko, finkatutako helburuak betetzeko ezinbestekoa da irakasle guztiak elkarlanean jardutea, haurrei egokitutako esku-hartze anitzak proposatuz, haien parte-hartzea bultzatuz, jarduera ezberdinen bitartez umeen garapena landuz, gurasoekin

elkarlanean arituz, material zein txokoetan aldaketak txertatuz, espazioaren zein materialaren antolaketa egokia burutuz, etab.

Gainera, ez dago esan beharrik, horrek guztiak izugarrizko aldaketa suposatzen duela ohiko sistemarekiko, izan ere gela eta espazio antolakuntza zabalak adin guztietarako egokituak izan behar dira.

5. Eranskina:

BEHAKETA TAULAK

Psikomotrizitate saioari dagokionez, esan, bi urteko hemeretzi hurrez osatutako gelan hamabi saio ezberdin ikusteko aukera izan dudala, eta bertan, hurrei laguntzeaz gain, behaketak egiten aritu naizela, baina batez ere lau hurrei. Horren arrazoia, gelako behaketa orokorra izateaz gain, haur espezifikoko batzuen zentratuz gero, informazio gehiago eta zehatzagoa lortu nezakeelako izan da. Haur hauen aukeraketa, jaiotze data eta sexua kontuan izanik izan da; beraz, lehenengo haurra Otsailekoa (mutila) da, bigarrena Maiatzekoa (neska), hirugarrena Irailekoa (mutila) eta azkena, berriz, Abendukoa (neska).

Bestalde, eguneroko behaketak, behaketa taula batean txertatu ditut psikomotrizitate saio bateko 17 parametro ezberdinei erreparatuz, eta emozioei dagokionez, bost emozio ezberdin behatu ditut, niretzat garrantzitsuenak eta egunero bizi izaten ditugunak direlako; poztasuna, beldurra, tristura, harrotasuna eta amorrua/haserrea. Horrez gain, taula bakoitzaren amaieran ohar bereziak txertatu ditut, saioan zehar bizitako komentarioak edota oharrak gehitzeko.



1. SAIOA: Azaroak 26

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai, kuxinetara gerturatuz	Bai, eraikinetatik salto egiterako orduan	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Bai, salto egitean	Ez
Bakarrik aritu da jolasean?	Bai	Ez	Bai	Bai
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Ez	Bai, txikitik laguntzarekin	Ez
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Ez	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, eraikinetara igotzeak	Bai, bakarrik salto egiteak	Bai, espazio berriak eta eraikinetara igotzeak
Iskanbila batean sartu da?	Ez	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza eta beldurra	Poza eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Ez	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Koltxoneta txikiak lurrera botatzen aritu da	Kuxinekin jolasean egonda, bata bestearen gainean jarriz	Saltoka aritu da denbora guztian zehar	Kuxin baten alboan egon da denbora gehiengoa
Oreka mantentzen du?	Bai	Ez	Ez	Ez
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez



Ohar bereziak:

Gaur, haurren lehendabiziko aldia izan da aretora joaten ginela, eta, are gehiago, bertako materialak eta espazioak ikusten zutena.

Gela arruntetik atera bezain pronto, haur batzuegan ikara sentitu dut, ez baitzekiten nora abiatzen ginen, eta besteengan, poztasuna, zerbait berria ikusteko eta bizitzeko gogo. Aretora sartu aurretik, irakasleak, saioa hasi aurretik gelako iskina batean kokatuko ginela azaldu die, bertan zapatilak eta galtzetinak kendu ahal izateko, eta behin ala saioari ekiteko.

Saioari ekin eta haur batzuk ez dira ausartu dorrea botatzera, eta gainontzekoak, korrika eta garrasika abiatu dira. Haurrak gehien bat esperimintatzen eta gela egoki behatzen jardun dute, eta haur gehienak jauziak egiteko eraikinetara igo dira. Ez da iskanbilarik sortu eta orokorrean saioa oso ondo joan da, emozio ugari esperimintatuz.

Lehenengo eta hirugarren hurrei dagokionez, eraikin txikitik salto egitera ausartu dira, aldiz, bigarren eta laugarren haurrak ez.



2. SAIOA: Abenduak 3

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Ez	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai, kuxinetara gerturatuz eta espalderetan	Bai, kuxinetara gerturatuz eta eraikinetatik salto egiterako orduan	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Bai, salto egitean	Ez
Bakarrik aritu da jolasean?	Bai	Ez	Ez	Bai
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bakarrik. Eraikin handienetik ere ausartu da jauzia bakarrik egitera.	Ez	Bai, txikitik laguntzarekin	Ez
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Ez	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, eraikinetara igotzeak eta dorrea botatzeak	Bai, salto egiteak	Bai, eraikinetara igotzeak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza eta beldurra	Poza eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Koltxoneta txikiak eta baloi bigunak botatzen aritu da	Kuxinak eta koltxonetak lekuz mugitzen aritu da	Kuxinekin eta espalderatan jolasean aritu da	Kuxin baten alboan egon da denbora gehiengo



Oreka mantentzen du?	Bai	Ez	Ez	Ez
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez

Ohar bereziak:

Haurrak gelan bildu eta nora goazen galdetzean, batzuek oso pozik erantzun dute eta atera ziztu bizian abiatu dira.

Aretora sartu, oinetakoak kendu eta saioari ekin diogu. Gehiengoak hasiera batean eraikinetara igo dira jauziak egitera, saioaren erdialdean, berriz, haur gehienak kuxinekin eta koltxonetekin esperimendatzen aritu dira.

Lehenengo haurari dagokionez, iskanbilatan sartu da besteen eraikinak puskatzen aritu delako, eta materiala gainontzekoei jaurtitzen jardun delako. Bestalde, eraikin handitik bakarrik salto egitera ausartu da, bi aldiz pentsatu gabe.

Bestalde, gaur oreka eta koordinazioa nola mantentzen edo lantzen duten begiratu dut, eta esan beharra dago denbora guztian ari direla horiek lantzen:

- Eraikin txikira igotzeko bost eskailera igotzean
- Eraikin handira igotzeko arranja bat igotzean
- Espalderak igo eta jaistean
- Eraikinaren ertzean kokatzean, salto egin aurretik
- Eraikinetatik jauziak egiteak
- Koltxonetetan salto egitean
- Etab.

Orokorrean, ikasle gehiengoak naiz eta guztiz oreka edota koordinazioa ez mantendu, nahiko ondo manejatzen dira.

Amaitzeko, esan, egoki joan dela saioa.

3. SAIOA: Abenduak 10

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai	Bai	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Bai, hasiera batean salto egitean, ondoren bakarrik egitera ausartu da	Ez
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Bai
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bietatik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik	Ez
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Ez	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, eraikinetara igotzeak	Bai, hasiera batean bakarrik salto egiteak	Bai, eraikinetara igotzeak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Bai	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza, haserrea eta beldurra	Poza eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Ez	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Koltxoneta txikiak eta baloi bigunak botatzen aritu da. Gainontzekoen etxeak puskatzen aritu da.	Kuxinekin eta koltxonetekin eraikinetara egiten aritu da	Kuxinekin eta baloiak jaurtitzen aritu da	Koltxonetan aritu da, behatzen
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Koordinazioa lantzen du?

Bai

Bai

Bai

Ez

Ohar bereziak:

Hirugarren haurra, hasiera baten eraikin txikitik laguntzarekin salto egiten aritu arren, amaierarako bakarrik salto egitera ausartu da, eta oso pozik eta arro sentitu da.

Saioan zehar iskanbila ugari izan ditugu, haurrak aztoratuta bait zeuden, eta, haur ugari negarrez aritu dira iskanbilak direla medio. Saioa amaitzean, gertatutakoaren inguruan hitz egiten aritu gara eta hurrek arreta handiz jardun dute, ulertu dutena adieraziz.



4. SAIOA: Abenduak 17

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai	Bai	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai, eraikin txikitik salto egitean	Eraikin handira igotzea lortu du, baina nolako altura dagoen ikustean bertatik besoetan jaisteko eskatu digu	Ez
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin	Bai, txikitik bakarrik	Ez
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, salto egiteak	Bai, eraikin handitik salto egiteak	Bai, eraikinetara igotzeak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Bai	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea eta harrotasuna	Poza eta harrotasuna	Poza, haserrea eta beldurra	Poza eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Ez	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinekin, koltxonetekin eta txurroekin aritu da jolasean	Eraikinetik salto egiten eta kuxinekin jolasean aritu da	Kuxinekin torreak egiten eta txurroekin jolasean aritu da	Koltxonetan eta kuxinak lekuz mugitzen aritu da
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Koordinazioa lantzen du?

Bai

Bai

Bai

Ez

Ohar bereziak:

Bigarren haurra, eraikin txikira igotzen ausartu da eta laguntzarekin salto egitea lortu du, beldurra gaindituz eta gustura sentiaraziz.

Saio oso egoki joan da. Haurrak askoz solteago nabaritzen ditut, lehenago jauziak bakarrik egitera ausartzen ez ziren haurrak orain beldur barik aritzen dira, eta eraikinetara igotzen ez zirenak, berriz, orain denbora guztiak laguntzarekin jauziak egiteari jarduten dute.

Bestalde, gelan aurkitzen diren materialei askoz ere erabilpen gehiago ematen dietela ohartu naiz.



5. SAIOA: Urtarrilak 7

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Bai	Bai	Bai	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Ez	Bai, eraikin txikitik salto egitean. Dena den, aipatu ez duela eskatu laguntza, isilik eraikin ganean mantendu da hezitzailea gerturatu eta galdetu arte
Bakarrik aritu da jolasean?	Hasiera batean bai	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, salto egiteak	Ez	Bai, salto egiteak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea, harrotasuna	Poza eta harrotasuna	Poza	Poza, harrotasuna eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Koltxonetek eta baloiak botatzen aritu da. Baita, futboleko jolasten.	Kuxinekin etxeak egiten eta garraio ezberdinen erabilpena ematen egon da	Kuxinekin torreak egiten eta espalderatara igotzen aritu da	Eraikinean behatzean edota salto egiten aritu da



Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai

Ohar bereziak:

Gabonak direla eta, aste batzuk etxean izan ondoren haurrak nekatuta etorri dira, eta gainera normalean baino haur gutxiago etorri dira. Dena den, oso pozik aritu dira jolasean, eta elkarrekin eraikin zein istorio anitzak asmatzen dituztela ikusi dut.

Bestalde, laugarren haurrari dagokionez, gaurkoan eraikin txikitik laguntzarekin salto egitera animatu da, eta gustuko duela ikustean denbora guztian aritu da saltoak egiten.



6. SAIOA: Urtarrilak 14

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Bai	Bai	Bai	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Ez	Bai, eraikin txikitik salto egitean.
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin. Dena den, aipatu ez duela eskatu laguntza, isilik eraikin gainean mantendu da hezitzailea gerturatu eta galdetu arte
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, eraikinetara igotzeak	Ez	Bai, salto egiteak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza	Poza, harrotasuna eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinak alde batetik bestera mugitzen eta torreak puskatzen aritu da	Kuxinekin etxeak egiten aritu da	Kuxinekin etxeak egiten aritu da	Eraikinean behatzean edota salto egiten aritu da



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Ez
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohar bereziak: Haurrak oso pozik aritu dira eta saioa oso ondo joan da. Bestalde, finkatutako arauak eta helburuak betetzen ari direla ikusi dut saioetan zehar, eta haurrak errutina gisa dute aretoa, hots, barneratuta dute astelehena dela eta zer tokatzen den.				



15 . SAIOA: Martxoak 25

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Ez	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai, kuxinekin torreak egiteko	Bai, koltxoneta txikiak ateratzeko eta eraikin handitik salto egiteko	Bai, eraikin txikitik salto egiteko. Dena den, aipatu ez duela eskatu laguntza, isilik eraikin gainean mantendu da hezitzailea gerturatu eta galdetu arte
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik eta handitik laguntzarekin	Bai, txikitik laguntzarekin
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, dorrea botatzea	Ez	Bai, bakarrik salto egiteak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, haserrea eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza eta haserrea	Poza eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai



Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinak, baloiak, espatak, etab. jolasean aritu da. Kuxinei erabilera ezberdinak eman dizkio, esaterako, autoa.	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinekin zaldiriarena egiten aritu da	Kuxinekin eta koltxonetekin etxeak eta oheak egiten aritu da	Saio guztian zehar eraikin txikitik salto egiten aritu da, amaierarako kuxinekin borobilak egiten aritu da
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai

Ohar bereziak:

Ikusi nuen azken saiotik gaurkora izugarritzko aldaketa ikusi dut. Esaterako:

- Saioaren hasieran zein amaieran, oinetakoak eta galtzerdiak kentzeko zein jartzeko askoz autonomoagoak direla ikusi dut
- Saio hasierako zein amaierako azalpena eta ipuina entzuteko orduan askoz kontzentratuago nabaritu diet
- Saio osoan zehar, beste saio batzuen antzera aritu direla ikusi dut. Dena den, haur batzuek eraikin handitik zein txikitik bakarrik salto egitera ausartu direla ikusteaz gain, gelako materialei ere erabilpen anitzak eman dizkietela nabaritu dut. Ahala eta guztiz ere, nik behatu ditudan haurrengan ez dut desberdintasunik ikusi.
- Oreka eta koordinazioari dagokionez, askoz hobeto manejatzen direla nabaritu dut. Esku eta oinen arteko koordinazio egokia nabari da, batez ere eskailerak edota espalderak igotzean. Oreka, aldiz, salto egin ostean zutik mantentzen direla ikusi dut.

Bestalde, behatutako bigarren haurrari dagokionez, dorrea botatzeko ordua iritsi denean eskua heldu eta dorrea ez zuela bota nahi esan dit. Horren aurrean, ez dut behartu eta haurrak korrika hasi direnean, ea elkarrekin dorrea egingo genuen proposatu diot, berak botatzeko intentziaz. Honakoa egin ostean, oso gustura aritu da dorreak botatzen; beraz, gustatzen ez zaiona gainontzekoekin korrika abiatzea dela ohartu naiz, eta hori beldurrengatik izan daiteke.

Laugarren haurrari begira, aipatu, saio osoan zehar eraikin txikitik laguntzarekin salto egiten aritu arren, gaurkoan jolas sinbolikoari ere denbora bat eskaini diola.

Lehenengo eta hirugarren haurrak, ordea, beste saioetan bezala aritu direla uste dut, nahiz eta zenbait material berri gehitu dituzten haien jolasetara. Dena den, hirugarren haurra eraikin handitik laguntzarekin salto egitera ausartu dela ikusi dut. Gainera, saioari hasiera eman eta dorrea botatzeko orduan, naiz eta korrika biziz abiatu ez da iritsi dorrea botatzera eta ondorioz, asko haserretu eta negarrez abiatu da irakaslearengana. Irakasleak, zer gertatu den galdetu dio eta umeak gertatutakoa kontatu ostean, irakasleak dorre txiki bat egin dio berak botatzeko. Horren aurrean, haurra lasaitu egin da. Gainera, gaurkoan, asko pentsatu ondoren, laguntzarekin eraikin handitik salto egitera ausartu da.



16. SAIOA: Apirilak 1

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Gaur ez da klasera etorri
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai	Ez	
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai, kuxinekin torreak egiteko eta eraikin txikitik salto egiteko.	Bai, eraikin handitik salto egiteko	
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, txikitik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin	Bai, txikitik bakarrik eta handitik laguntzarekin	
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, eraikin txikitik bakarrik salto egiteak	Bai, eraikin handitik bakarrik salto egiteak	
Iskanbila batean sartu da?	Ez	Ez	Ez	
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza eta harrotasuna	Poza, harrotasuna eta beldurra	Poza eta harrotasuna	
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinak, baloiak, espatak, etab. jolasean aritu da, gainontzekoei zein edozein iskinetara jaurtiz	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinekin etxeak egiten aritu da	Kuxinekin, koltxonetekin eta espatekin era ezberdinetara jolasean aritu da	
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Koordinazioa lantzen du?

Bai

Bai

Bai

Ohar bereziak:

Bigarren haurri dagokionez, esan, laugarren saiotik hamaseigarrenera ez dela gehiago ausartu eraikinetatik salto egitera, baina, gaurkoan, eraikin txikira igo eta irakaslearen laguntzarekin salto egin du bi bider. Horrez gain, gaur ere ez da ausartu hasierako dorrea botatzera, baina, ondoren, dorre txikiak egiten aritu da berak botatzeko asmoz.

Beste bi haurrei dagokionez, betiko antzera jardun dute, baina gaur denbora gehiena espatekin jolasean eta koltxoneta txikiak botatzen aritu dira.

Amaitzeko, saioa oso egoki joan dela ikusi dut.



19. SAIOA: Maiatzak 6

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Ez	Bai	Bai	Ez
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Ez	Bai, eraikin handitik salto egiteko	Bai, eraikin txikitik zein handitik salto egiteko. Dena den, aipatu ez duela eskatu laguntza, isilik eraikin gainean mantendu da hezitzailea gerturatu eta galdetu arte.
Bakarrik aritu da jolasean?	Bai	Ez	Ez	Bai
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bietatik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik eta handitik laguntzarekin	Bai, txikitik eta handitik laguntzarekin
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Bai	Bai, dorrea botatzea eta salto egiteak	Ez	Bai, bakarrik salto egiteak
Iskanbila batean sartu da?	Ez	Ez	Ez	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, beldurra eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza	Poza, harrotasuna eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai



Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinei eta baloiei erabilera ezberdinak eman dizkio	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinei erabilpen ezberdinak eman dizkio	Kuxinekin eta koltxonetekin eraikinak egiten aritu da	Eraikinetatik salto egiten zein kuxinekin jolasean aritu da
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai

Ohar bereziak:

Lehenengo haurrari dagokionez, hezitzaileak haurrari eraikin handitik salto egiteko aukera eskaini eta haurrak ezetz esan dio bere amak etxean handitik salto ez egiteko eskatu diolako, beldurratik. Hezitzaileak horren aurrean, haurrari animatzen ahalegindu da, aurretik salto eginda zuelako eta gai delako. Haurrak asko pentsatu arren, ez beldur zelako baizik eta amagaitik, salto egin du berak bakarrik. Gustuko duela ikustean, ia saio guztian zehar handitik salto egiteari ekin dio.

Bigarren eta hirugarren haurrak, ordea, beti bezala aritu dira, baina kuxinei eta koltxonetei erabilpen ezberdinak emanaz.

Laugarren haurrari begira, gaurkoan eraikin handira igo eta laguntzarekin salto egitera animatu da, eta gustuko duela ikusi du.

Amaitzeko, orokorrean saioa egoki eta lasai joan da.



20. SAIOA: Maiatzak 13

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai. Eraikin txikitik salto egitean	Bai. Eraikin handitik salto egitean	Bai, eraikin txikitik zein handitik salto egiteko, eta espalderatik jaisteko
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bietatik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin	Bai, txikitik bakarrik eta handitik laguntzarekin	Bai, txikitik eta handitik laguntzarekin
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, dorrea botatzea eta salto egiteak	Ez	Bai, bakarrik salto egiteak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Bai	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza eta harrotasuna	Poza eta beldurra	Poza eta harrotasuna	Poza, harrotasuna eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinei eta koltxonetei erabilera ezberdinak eman dizkio	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinei erabilpen ezberdinak eman dizkio (etxea, zaldia...)	Kuxinekin eta koltxonetekin eraikinak egiten aritu da	Eraikinetatik salto egiten, espalderak igotzen, zein kuxinekin jolasean aritu da



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai

Ohar bereziak:

Aurreko astearekin alderatuz, ez dut ezberdintasun handirik ikusi. Dena den, laugarren haurrari dagokionez, gaurkoan, lagun batekin aritu da saio osoan zehar ekintza ezberdinak egiten, eta eraikinetatik salto egiterako orduan, laguntza eskatu behar dela adierazi diogu eta horixe bera eskatzea lortu dugu. Horrekin batera, gaurkoan espalderatara igotzera ausartu da, baina jaisterako orduan laguntza eskatu behar izan du, ez baitzekien nola jaitsi.

Orokorrean, saioa nahiko aztoratuta joan da, gehienak arazoren batean sartu direlako edota ekintzaren batean min hartu dutelako.



22. SAIOA: Maiatzak 27

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai	Ez	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai. Eraikin txikitik salto egitean	Ez	Bai, eraikin txikitik salto egiteko
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bietatik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin	Bai, txikitik bakarrik	Bai, txikitik laguntzarekin
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Bai, salto egiteak	Ez	Bai, bakarrik salto egiteak eta dorrea botatzeak
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Bai	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza eta haserrea	Poza eta beldurra	Poza	Poza, harrotasuna eta beldurra
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinak botatzen aritu da	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinei erabilpen ezberdinak eman dizkio	Kuxinekin eraikinak egiten aritu da	Kuxinekin jolasean aritu da
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Ohar bereziak:

Lehenengo haurra oso aldatuta egon da, alde batetik bestera mugitzen eta kuxin guztiak botatzen inguruan zer zegoen begiratu gabe. Bigarren haurra betiko bezala aritu da, baina bestetan ez bezala, gaur hasiera batetik ausartu da eraikin txikitik salto egitera (laguntzarekin). Hirugarren eta laugarren haurrengan ez dut ezberdintasunik ikusi.

Gaurko saioa oso aztoratuta joan da, haur guztiak garrasi batean aritu dira. Gainera, lehenengo haurra iskanbila askotan sartu da, eta une oro haur bat negarrez aritu da.



24. SAIOA: Ekainak 10

PSIKOMOTRIZITATE GELAKO PARAMETROAK	HAURRA 1 (Otsaila)	HAURRA 2 (Maiatza)	HAURRA 3 (Iraila)	HAURRA 4 (Abendua)
Hasierako torrea puskatu du?	Bai	Ez	Bai	Ez
Jolas motorrean aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Jolas sinbolikoan aritu da?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak beste haur baten arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Haurrak irakaslearen arreta edo begirada eskatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Irakaslea inplikatu du bere jolasean?	Ez	Bai	Bai	Ez
Ekintzaren batean laguntza eskatu du?	Ez	Bai, torreak egiterako orduan	Bai, koltxonetekin jolasteko	Ez
Bakarrik aritu da jolasean?	Ez	Ez	Ez	Ez
Eraikinetatik jauzi egitea lortu du? Laguntzarekin edo bakarrik?	Bai, bietatik bakarrik	Ez	Bai, txikitik bakarrik	Ez
Ez da irakaslearengana hurbildu saio osoan zehar?	Bai	Bai	Bai	Bai
Zerbaitek beldurra eman dio?	Ez	Hasierako dorrea botatzea	Ez	Hasierako dorrea botatzea
Iskanbila batean sartu da?	Bai	Ez	Bai	Ez
Ze emozio bizi izan ditu saioan zehar? Adierazteko gai izan da?	Poza, ezinegona eta haserrea	Poza	Poza eta haserrea	Poza
Markatutako espazioa errespetatzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ikasgelako objektuak erabili ditu? Eta nolako erabilera eman dio horri?	Kuxinak, koltxonetak... botatzen aritu da	Koltxonetan salto egiten, espalderak igotzen eta kuxinei erabilpen ezberdinak eman dizkio	Koltxonetekin jolasean eta salto egiten aritu da	Kuxinekin jolasean aritu da, etxeak egiten
Oreka mantentzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Koordinazioa lantzen du?	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohar bereziak:				



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Lehenengo haurra oso aldatuta egon da, emozioak ezin kontrolatuta. Iskanbila ugaritan sartu da, eta ez zekien zertan jolastu.

Bigarren eta laugarren haurrak, kuxinekin aritu dira saio osoan, lagunekin etxeak egiten edota kuxinei erabilpen ezberdinak ematen (kotxeak, zubia...). Espalderak igotzen ere aritu dira.

Hirugarren haurra, denbora gehiengoa koltxoneta txikiekin jolasak egiten aritu da, alde batetik bestera mugituz.

Azken saio honetan, orokorrean, haurrak egoki ikusi ditut, baina iskanbila ugari egon direnez, haur asko negarrez aritu dira saioan zehar.

Bestalde, sarrera-erritualari dagokionez, oso ondo barneratu dutela ikusi dut, baina amaierako-erritualari dagokionez, ordea, asko kostatzen zaie lasaitzea eta gelatik egoki ateratzea.